

hiruka

181. zenbakia
2022ko martxoa



OLATZ VÁZQUEZ «Minbizia» argazki-erakusketa

Ez dadila sua itzali


EUSKARAREN LAGUNA SALTOKIEN MAPA. BILATU ZURE ESTABLEZIMENDUA!

Animatu zaitetz euskaraz egiten zure herriko denda eta tabernetan!
Sorpresa ederra hartuko duzu, uste baino gehiagotan artatuko zaituzte euskaraz!

MAPA COMERCIO AMIGO DEL EUSKERA. ENCUENTRA TU ESTABLECIMIENTO

¡Valora el esfuerzo que realiza tu tendero/a y hostelero/a habitual para que el euskera esté presente en su negocio!

 www.getxo.eus/euskararenlaguna



*Euskararen
laguna saltokia*



*Comercio amigo
del euskera*

Aurkibidea

- 4 Puntua eta kontrapuntua
- 5 Erretratua
- 6 Zaintza negozio bilakatzen denean
- 10 Herriz herriko informazioa
- 16 Begia eta bisturia
- 17 Barneratutakoa askatzen
- 18 Hirudika
- 24 Lehen/orain eta Urubitakora
- 25 Mundukatuak
- 26 Berbetan: Josune Muñoz, Skolastikako kidea
- 30 Lohitzune Rodriguez, Uribe Kostako Korrika arduraduna
- 31 Nerea Elizalde, *Go!azen* telesaileko aktorea
- 32 Agenda
- 33 Musikhariak: Ginger
- 34 Hirubi, Sopelako Triatloi Taldea
- 35 Punta Galea Surf Challenge, iruditan
- 36 Iritziak eta horoskopoa
- 37 Usategi
- 38 Argazkilariaren txokoa
- 40 Hirukira Olgetan: umeentzako denbora-pasak
- 42 Faceguk
- 43 Zozketak



hiruka

HIRUKA kooperatiba elkartea

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO

e-posta: hiruka@hiruka.eus

Posta-kutxa: 171

Telefonoa: 944 911 337

Publizitatea: Maria Gorostiola

Erredakzioa: Iker Rincon Moreno, Hodei Torres eta Ander Zarraga

Diseinua: Artefakto

Kudeaketa eta administrazioa: Ziortza Merino

Zenbaki honetako kolaboratzaileak:
Aitana López, Josu Esnaola, Jagoba Pereda, Unai Mendiburu, Julen Nafarrate, Ina Gastaka, Ainhoa Ortells, Beñat Vidal, Asier Barrietabeña, Sorginen Alabak, Erika Bilbao eta Joseba Santxo

Filmazioa eta Inprimategia: Gertu Inprimategia

Lege-gordailua: BI-2022-2014

ISSN: 2386-98-95

Ale-kopurua: 5.000

CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak



Bizkaia

*foru aldundia
diputación foral*

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

Kultura eta Hizkuntza Politika
Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetzak) diruz lagundua.

Sexu-klase kontzientzia eraiki

AITANA LÓPEZ HERNÁNDEZ Berdintasun zinegotzia



Denok berdinak garela entzun ohi da. Instagrameko post bat dirudi. Gazteek barneratu egiten dute. Errepikatzen dute. Neskek oihukatu egiten dute ere. Baina gezurra da. Ez, ez gara berdinak, esan behar diegu, ezer aldatu ez dadin sortutako tranpa da.

Demagun borroka antikapitalista zu edo ni Amancio Ortega bezalakoak garela errepikatzearen inguruan antolatzen dugula. Demagun klase sozialekin amaitzeko borroka klaseen artean ezberdintasunik ez dagoela errepikatzean datzala. Zentzugabekeria, ezta?

Orduan, zergatik esaten diegu neskei eta emakumeei mutilen edota gizonen berdinak direla? Ez gara berdinak, patriarkatua izeneko sistema baten menpe jarraitzen dugulako. Duela aste batzuk, 19 urteko mutil batek 17 urteko neska-lagun ohia hil du. Erandion, bost neskatik batek sexu-erasoa jasan du. Adibideak bakarrik.

Ez, ez gara berdinak. Eta borroka feminista ezin da lelo idealista horretan oinarritu. Edo sexu-klase kontzientzia eraikitzen dugu —teoria feminista erradikalaren hitzetan—, eta emakumeok gure egoeraz jabetzen gara, edo berdin dio zenbat aldiz oihukatzen dugun berdinak garela, ez gara inoiz berdinak izango.

Hemen dator Korrika

JOSU ESNAOLA Helduen euskara-irakaslea



Martxoaren azken egunarekin batera hasiko da Korrika Euskal Herrian. Korrikari ekingo diola esan beharko nuke akaso, 22. aldiz 2022. urte honetan. Hankekin eta hitzekin.

Aurretik, edozein kiroletan egin ohi den legez, gorputza puntuan jartzeko beroketa ariketak izango ditugu gure herrietan Korrika Kulturalaren bitartez.

Gorputza ez, baina burua berotzen hasi zitzaidan Korrikaren aurkezpen mezua entzun nuenean: «hitzekin, ekin, egin, eragin, eginarazi». Ekin, bai. Herri ekintzailea ei gara, senean txertatuta ei dugu. Eragitean, ordea, ez dakit beti asmatzen ote dugun. Eginaraztearena... hurrengo baterako utziko dut.

Egun batzuetara Korrikaren abestia entzun nuen. «Sentitu, pentsatu, hitzekin, zurekin». Orduan bai, orduan burua korrika batean hasi zitzaidan; izan ere, ekinak aurreko eta osteko gogoeta eskatzen duelakoan nago, eta zenbaitetan azken hori ahaztu egiten dugula begitantzen zait.

Gainera gogoeta hitzekin egiteaz aparte, zurekin egin beharreko kontua da, elkarrekin egin beharrekoa. Gogoetarik gabeko ekintzak eta partekatu gabeko gogoetak burua moztu dioten oiloaren korrikaldiren antzekoak baitira: korrika egin bai, baina noraezean.

Puntua eta kontrapuntua **Nagusien egoitzak**

Sarraskia



*Soberan dauden denak
garbitzeko plana;
sarraskia egiteko
«covid» dugu arma,
nagusien etxetan
borobilduz trama...
Bizi osoan zehar
e(g)inda gero lana,
hiltegiara sartuko
zenuke zuk ama??*

**JAGOBA
PEREDA
TXOPIETA**
Getxo

*Bisita gelak hutsik,
logelak beteta.
Baldintzarik txarrenak,
birus bat kolpeka,
baina hiltegi bat den...
egin gogoeta.
Pentsa langilearen
irria, fereka...
Maitatu sentitzea
merezi dute (e)ta!*

**UNAI
MENDIBURU
VALOR**
Algorta



Arantza Alberdi Aramendi Aktore eta sortzailea

«Antzerkia egitea da nire bizipoza»



Kalamua antzerki talde sopoloztarreko kidea da Arantza Alberdi. Antzezan berria prestatzen ari dira, ikuspegi feministarekin.

TESTUA: JULEN NAFARRATE • ARGAZKIA: HODEI TORRES ▶


Kurtzio kultur etxean jarri dugu hitzordua Arantza Alberdirekin. Kalamua antzerki taldeko kideek bertan egiten dituzte entseguak astelehenero. «Gozatzen dugu pilo bat. Bakoitzak arrazoi ezberdinak ditu antzerkian aritzeko, nire kasuan, bizipoza ematen dit». Javier Liñeraren gidaritzapean, taldea 50 urte baino gehiagoko bederatzia emakumek osatzen dute. Baina adina ez ote da oztopo antzerkian aritzeko? «Gure taldean inork ez du hori uste, adina ez da muga izango horretarako!». Batzuetan, gainera, adinarekin galtzen dira lotsa guztiak... «Nire kasuan, aspaldi galdu nuen! Txikitant herri-bazkarietan egoten nintzen kantuan, beti gustatu zait». Gai hori bera landu du Kalamuak *Amama mia*

bere azken antzezlanean. Nagusien Etxe batean girotuta, Arantzak gorpuzten duen pertsonaiak kolore apur bat ematen dio Nagusien Etxe grisari: «Nagusiak izatearren ez du esan nahi ezin dugunik ondo pasa eta bizitzaz gozatu». Sopelan, Berangon eta Romon egin dituzte emanaldiak: «Jendea irribarretsu irten da antzerkitik, ilusioa transmititzen saiatu gara». Antzezteaz gain, gidoia ere idatzi du Alberdik. Eta ez hori bakarrik! «Beti gustatu zait idaztea. Eta jostea! Baina hau guztia talde-lana izan da, denok egin dugu gure ekarpena».

Getxoko Antzerki Eskolan bere lehenengo urratsak egin ostean, Sopelan jarraitu du jo eta su antzerkigintzan. Oraintxe, antzezan berri bat prestatzen ari dira Kalamuako kideek: «Sekretua da, ezin dizut ezer kontatu oraindik». Hori bai, ikuspegi feminista izango du, aurreko antzezlanean bezala: «Emakumeak beti egon gara zapalduta, gure istorio asko oraindik kontatu barik dade, meategietako emakume langileena adibidez. Guk hori kontatuko dugu, baztertuta eta isilduta egon direlako, eta aitortza zor diegu». ◀

**Zaintza
negozio
bilakatzeko
denean**





Bizkaian 11.000 plaza inguru daude adineko pertsonen egoitzetan, duela 20 urte halako bi. Hazkunde betean dagoen sektorean negozio-aukera ikusi dute batzuk, eta horrek erabat feminizatuta dagoen sektoreko lan-baldintzak okertu ditu. Bitartean, beharginetako askok sektorean benetako aldaketa bat emateko garaia dela uste dute eta, horregatik, kalera atera dira.

TESTUAK: **ANDER ZARRAGA** ►

Europako biztanleria zahartuenetako bat daukagu Bizkaian: biztanleriaren % 23,4k 65 urte edo gehiago ditu (EUSTAT, 2021), eta datu horrek gora egingo du hurrengo urteetan, 2030ean, % 38,7 izatea aurreikusita baitago. Urte asko bizitzeak bestelako behar berriak sortu ditu gizartean, zaintzaren alorrean batez ere; era berean, horrek, negozioa egiteko aukera ikusi dutenak ere erakarri ditu, lehen etxeko eremu pribatuan egiten ziren zaintza-lanak profesionalizatu eta enpresen esku utzi baitira. Hasiera batean, gehienbat, zerbitzu publikoak ziren, baina, pixkanaka-pixkanaka, enpresak sartzen joan dira, eta sektorea negozio bilakatu dute, zerbitzuaren eta langileen baldintzak okertuz. Azken urteotan, beharginek egindako protesta eta greben bitartez ustezko hobekuntzak lortu dituzten arren, sektorearen prekarizazioa etengabea izan da. Hori ikusita, egoitzetako langileek mobilizazio berriak hasi dituzte; hala ere, askok uste dute arazoagaz amaitu dezakeen aukera bakarra pribatizazioak eten eta sektorea berriz ere esku publikoetara bueltatzea dela.

Azken urteotan, EAeko erresidentzien jabetzak eta kudeaketak norabide argia izan du. 1991n, egoitzen % 9 bakarrik ziren pribatuak, eta gainontzekoak jabetza publikokoak ziren; gaur egun, ordea, erakunde publikoek kudeatutako zentroak ez dira % 9ra heltzen, gainontzekoak enpresa pribatuenak edo beraiek kudeatutakoak diren bitartean. Horrela aurkezten du nagusien egoitzen pribatizazio-prozesuaren panorama Ahoztar Zelaieta kazetariak argitaratu berri duen *Erresidentziak SA, zaintzaren negozioa Euskal Herrian* ikerketa-liburuan.

Egoitzen kudeaketa eta jabetza esku pribatuetara pasatzeak lan-baldintzen okertzea ekarri du halabeharrez: alde batetik, enpresa horietako langileek erakunde publikoetan lan egiten dutenen erdia kobratzen dute, bataz beste; bestetik, langileei merkatuko logika arrazionalista hutsa aplikatzen zaiela dio

Idoia Bustinza Erandioko Sanitas Loramendi adinekoen egoitzako langileak eta LAB sindikatuko prebentzio-arloko ordezkariak: «Zenbat eta langile gutxiago, orduan eta gehiago irabaziko dute». Horrek lan-baldintzetan eta erabiltzaileek jasotzen duten arretan eragin zuzena duela azaldu du Eider Gondra gerokultore getxoztarrak: «Lanean beti gabilta erlojuaren kontra korrika, ordutegia aurrezarririta dago eta bete behar dugu. Ez dugu denborarik nagusiei behar bezalako arreta emateko, eta pertsonak izateari uzten diote; horrela bizitzea ez da duina». Naiara San Juan erizaina da, eta 19 urte daramatza arlo horretan lanean; berak ere kontatu du erresidentzieta-ko pertsonak duten autonomia apurra kendu egiten zaiela: «Haienzat oso garrantzitsua da dituzten baliabide gutxi horiek praktikatzea, baina denbora behar dute, eta gure lan-kargagaz ezin dizkiegu jantzeko edo jateko behar dituzten 20 minutuak eman».

Gainera, jende gehiago kontratatzeko eskatzen dutenean enpresariak ratioaren gaintetik daudela esaten dietela deitoratu du Gondrak: «Kontua da ratio horietan erresidentzieta-ko langile guztiak sartzen direla, mantenukoak edo ile-apaintzaileak ere, baina denok ez dugu lan berdina egiten. Gaur egun, Eusko Jaurlaritzak ezarritako ratioa beteko balitz, lan egitea ezinezkoa izango litzateke; egoiliarak ez lirateke ezta ohetik ere jaikiko».

378 EGUN GREBAN. Horregaz bukatzeko asmoz, 2017an greba historikoa egin zuten Bizkaiko erresidentzieta-ko beharginak, eta lurraldeko lan-hitzarmena berritzea lortu zuten: besteak beste, soldata igotzea eta laneko bajak % 100ean betetzea. Hala ere, garaipen gazi-gozoa izan zela aitortu Bustinzak: «Guk sektorean aldaketa bat eskatzen dugu, pertsonen zaintza erabat merkantilizatuta dagoelako. Enpresa horiek langileon eta erabiltzaileen lepora ateratzen dituzte mozkinak». San Juan erizaina ere bat dator Bustinzagaz, eta erantsi du, lorpen horiek enpresariak mozkinak gutxitu zituztenez, lan-karga beste alde batzuetatik areagotu dietela, irabaziak mantentzeko.

Horren aurrean, nagusien egoitzetako langileak berriz ere kalera atera dira, eta 2017ko lanuzteetan ELA sindikatuak babestu bazituen ere, 2021eko abenduaren 14an eta 2022ko otsailaren 8an, ELA, LAB, UGT eta CCOO sindikatuen laguntzagaz mobilizatu ziren, eta deialdietan jarraipen zabala izan zuten, Eusko Jaurlaritzak % 100eko zerbitzu minimoak ezarri zituen arren. Azken deialdiotan lan-baldintzen eta ratioen hobetzea, aldi baterako kontratuak murriztea eta IFASeko (Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundea)



«Guk sektorean aldaketa bat eskatzen dugu, pertsonen zaintza erabat merkantilizatuta dagoelako. Enpresa horiek langileon eta erabiltzaileen lepora ateratzen dituzte mozkinak»

IDOIA BUSTINZA
19 URTE ADINEKOEN EGOITZETAN
LANEAN



«Lanean beti gabilta erlojuaren kontra korrika; ordutegia aurrezarririta dago eta bete behar dugu. Ondorioz, ez dugu denborarik behar bezalako arreta emateko»

EIDER GONDRA
17 URTE GEROKULTORE GISA
LANEAN



«Horrelako ratioakaz lan egitean ezin dugu behar bezalako zaintza-zerbitzua eman; erabiltzaileak ez daude abandonatuta, baina bai arreta faltagaz»

NAIARA SAN JUAN
19 URTE ERIZAIN GISA
LANEAN

langileakaz soldata berdintzea eskatu zuten.

COVID-19aren izurriteak argi utzi du ez dutela baliabide nahikorik lan egiteko eta sektorearen pribatizazioak hori okertu besterik ez duela deitoratu dute. «Aldundiari ahoa betetzen zaio esaten jendeaz arduratzen dela, baina zerbitzu hori azpikontratatu egiten dute, eta langileok baldintza penagarrietan egiten dugu lan, gure osasun fisiko eta emozionalari eragiten dion lan-karga itzelagaz», salatu du Bustinzak.

Lan-baldintzak gogorak izan arren, hiruak bat datoz esatean bokazioagatik eta adinekoakaz lan egitea gustuko dutelako egiten dutela; horregatik daude baldintza duinak lortzeko eta kalitatezko zerbitzua eskaini ahal izateko borrokan murgilduta. «Askotan galdetu didate baldintzak hain txarrak badira ea zergatik ez dudan utzi, baina guk hobetzea gura dugu, bestela okertu besterik ez da egingo», dio Gondrak.

NOR DA PATRONALA? Zelaietak bere liburuan azaltzen du sektore honek ehunka milioi euro mugitzen dituela Bizkaian, bere errentagarritasuna oso altua baita, % 20-25 ingurukoa. Dioenez, bitarteko enpresak baliatuz, adibidez, GESCA eta LARES konpainiek, hainbat egoitza kudeatzen dituzte, eta, horien atzean dirutza handiak eta inbertsio-funtsak daude. Gainera, azken urteetan, ate birakarien sistemari esker enpresa horietan sartu diren hainbat politikari eta kargudun aipatzen ditu izen-abizenakaz; horiek kontratatuz, enpresek informazio pribilegiatua eta aparteko harremanak eskuratzen dituzte erresidentzien eta horien inguruko sektore guztia monopolizatzeke. Kazetariak adierazi duenez, «hau espainiar Estatuko beste toki batean gertatuko balitz izugarritzko zalaparta sortuko litzateke». Baina, orain arte, egoitzen sektoreko patronalak nolabaiteko zigorgabetasuna eta anonimotasuna mantendu du, hein handi batean administrazioak babesten duelako.

SEKTORE FEMINIZATUA. Baina erresidentzien sektorea ez da borrokan dagoen bakarra. Esate baterako, Bizkaian, etxez etxeko arreta zerbitzua ematen duten beharginak eta erai-kinetako garbiketako zerbitzuak hainbat protesta, greba eta mobilizazio egin dituzte azken urteotan. Denek dituzte bi gauza komunean: gehienbat emakumeak baliatzen dituzten sektoreak direla, hau da sektore feminizatuak direla, eta, azken urteotan, beraien lan-baldintzen okertzea etengabea izan dela; lan-karga gehiago, soldata-arrakala, bajak ez ordezkatzeko eta aldi baterako kontratuak.

Historikoki, emakumeek eremu pribatuan

egin izan dituzte zaintza-lanak. Jardun hori profesionalizatu denean, baina, ez dute beste sektore batzuetako aintzatespena lortu, eta bigarren mailako lan prekarioak bezala egituratu dira: familiek mendekotasuna duten senideez arduratzen diren pertsonak kontratatzen dituzte, emakume atzerritarrak gehienetan, edo egoitzetan sartzen dituzte beste batzuek zaindu ditzaten. «Gizonezkoen sektorea izango balitz goizetik gauera aldatuko litzateke, ez genuke jasango emakume bezala pairatu behar dugun hamarrena ere», deitoratu du Bustinzak.

Zelaietak generoaren gaia ere azpimarratzen du bere liburuan, eta esaten du emakume horiekiko tratu txar instituzionala normalizatu egin dela: «Bestelako lan-gatazketan, gizonak gizonakaz negoziatzen dute, baina hemen, emakumeak dira gizonakaz negoziatu behar dutenak, eta patronalak erakunde publikoen aldetik duten babesari esker aske sentitzen da nahi dutena egiteko».

ZAINTZAK ETXEAN. Egoitzara joan aurretik, erabateko menpekotasunera arteko bidea oso luzea izan daiteke kasu batzuetan, eta familia arduratu ohi da senideen zaintzaz eta, gehienetan, emakumeen gain erortzen da erantzukizun hori ere. Gotzone Ajuria getxoztarraren senarrak endekapenezko gaixotasun bat izan zuen eta, erresidentzia batean sartu aurretik, etxean zaindu behar izan zuten: «Hasieran, guk zaindu behar izan genuen etxean, baina gero, laguntza emateko pertsona bat kontratatu behar izan genuen». Bere alabak, Uriz Morenok, azaldu du hasieran konpontzen ziren arren, beraiek ez zutela ez gaitasunik ez ezagutzarik horrelako beharrak dituen pertsona bat zaintzeko, eta, ondorioz, horrek kalte emozionalak eta fisikoak ere eragiten dituela gaineratu du: «Ez zaude horretarako prestatuta». Erakunde publikoen aldetik, hasieran, laguntza gutxi jaso zutela ere deitoratzen dute biek, eta oso prozesu burokratiko konplexua egin behar dela azaldu dute.

Morenok adierazi duenez, zituzten baliabide ekonomikoei esker laguntzeko norbait kontratatu zuten, baina horrela ez balitz, oso zaila egingo zitzaien behar bezalako zaintza ematea: «Bakoitzaren egoera unean uneko baldintzen arabera da baina, oro har, oso bidegabea da, baliabideak ez dituztenek bere gain hartu behar dutelako senideen zaintza. Arazoa indibidualizatu egiten da, baina denok behar izango ditugu zainketak gure bizitzako uneren batean. Gizarteak emakumeoi ezarri digu gure gain hartu behar dugun ardua dela; halere, zaintza afektutik jaio behar da, ezin da inposatu». ◀



Bizkaiko erresidentzietako langileek protesta gehiago iragarri dituzte. LAB ESKUMALDEA



2017an, erresidentzietako langileek Bizkaiko hitzarmena berritzea lortu zuten. ELA



Langileen lan-baldintza txarrekin egoiliarrengan eragin zuzen-zuzena dute.

Getxo Herri-galdeketa

Lope de Vega kaleko eraikinen etorkizunari buruzko galdeketa

J oan den uztaillean, Eraisketari Ez - Romo plataformak 4.000 sinadura baino gehiago batu zituen Itzubaltzeta/Romoko Lope de Vega kaleko 12 zenbakiko eraikinen inguruko herri-galdeketa bat egin zezan eskatzeko Udalari; auzoko 17 kolektibok eta elkartek ere ideia hori babestu zuten. Hala ere, gobernu-taldeak eskaera hori onartu ez dela deitoratu du plataformak eta, hori dela eta, bere kabuz, datorren apirilaren 3an auzokideei euren iritzia eskatzeko galdeketa egingo dutela iragarri du taldeak.

Eraikin biak bota gura ditu Getxoko Udalak, Aldundiaren laguntzagaz, belaunaldien arteko zentro bat egiteko. ◀

Getxo Gaztetxea Algortan

Gune autogestionatu baten beharra aldarrikatu dute

O tsailaren 11n, Algortako Sarrikobaso kalean okupatutako eraikina hurrengo egunean modu «anker eta oldarkor» batean hustu eta zigitatu zutela salatu zuten dozenaka gaztek kalera-teea deitoratzeko San Nikolas plazan egindako kontzentrazioan. Bertan, babestuta sentitzen direla adierazi eta amesten duten herria eraikitzen jarraituko dutela iragarri zuten: «Babestuta sentitzen gara; lanean jarraituko dugu, amesten dugun herria eraikitzen, guretzako bizigarriak diren proiektuak sortzen». ◀

Getxo Emakumeen Etxea

Emakumeen Etxea diseinatzeko prozesua amaitzear dago

Bost emakume zinegotzik eta udalerriko 35 emakumek osatzen dute talde eragilea, eta azkenengo tailerra, laugarrena, martxoaren 3an egingo dute.



Lokala Bidezabaleko metro-geltokitik gertu dago. HODEI TORRES

G etxoko Emakumeen Etxea izango denaren funtsezko aspektuak lantzen ari den talde eragileko kideek Benturillenako 400 metro koadro dituen udal-lokala bisitatu dute, bertan aurreikusten baita egoitza izatea. Gune hori udalerriko emakumeek kudeatuko dute, Udalgaz batera, abian jarritako prozesuren arabera egokitu ondoren eta, horretarako, 400.000 euro baino gehiago bideratuko ditu Udalak. Bost emakume zinegotzik eta udalerriko hainbat esparrutako

35 emakumek osatzen duten talde eragileak Emakumeen Etxearen diseinua sortzeko prozesuaren hirugarren tailerrean parte hartu zuten, eta horretan aurreikusitako jarduerak garatzeko aukera emango duten guneen (irisgarriak eta atseginak) banaketaz mintzatu ziren. Aurreko tailerretan, Etxeak izan behar dituen balioei eta printzipioei buruz hausnartu zuten, baita zertarako sortzen den eta zer izan gura duen ere. Hala ere, antolaketaz eta eskaini beharreko zerbitzuei buruz aritu dira. ◀

SAN NIKOLAS TRASTOK

ERDIGUNEAN ZU

SANIKOLAS.EUS
Areneozpi Kalea, 15 (48991)
Getxo, Bizkaia

Sopela Tirabirak osoko bilkuran

Sopelako Udalak 6,6 milioi euro gehiagoko aurrekontua izango du

Otsaileko osoko bilkuran, udal-gobernuak zortzi kreditu-aldaketa onartu zituen. Oposizioak Udalaren jarrera kritikatu eta informazio falta salatu zuen.



Udalak 2,1 milioi euro bideratuko ditu Akilino Arriola oinezkoentzako egiteko.

Oposizioak gogor kritikatu zituen Sopelako gobernu-taldeak (EAJ-PSE) 2022ko aurrekontuetarako egindako kreditu-aldaketak, hasiera batean onartutako 16,4 milioi euroei beste sei milioi baino gehiago erantsi baitizkio. Oposizioko alderdiek (EH Bildu, Elkarrekin Podemos eta DB-TU) informazio, eztabaida eta kontrol eza egon dela deitoratu zuten. Koalizio abertzaletik salatu zuten daborduko «EAJk ez duela adostasunik bilatzen eta informaziorik gabe ezin daitezkeela egitasmoak adostu». Azkenean, gobernu-taldearen aldaketak aurrera atera ziren,

Patricia Alonso Elkarrekin Podemosekoa zenaren atxikirik gabeko zinegotziaren abstentzioari esker.

Aurrekontu gehigarri horregaz, Udalak Udaltzaingoaren polizia-etxearentzako partida bikoiztu gura du, beste 700.000 eurogaz; gainera, futbol-zelaiko belar artifiziala berri (900.000 euro), Iberrota, Lizarre eta Jauregizareeko umeentzako jolastokiak hobetu (422.000 euro) eta frontoiaren egokitze-lanak (608.000 euro) egin gura dituzte. Partidarik handiena Akilino Arriola kalea oinezkoentzako egiteko proiektuak eramango du: 2,1 milioi euro, hain zuzen ere. ◀

Leioa Iaz hasi zituzten protestak

Las Vegas auzoko zabor-kamioien biltegia lekualdatuko dute

Las Vegas bezala ezagutzen de Iparagirre zeharkaleko bizilagunen eskariei erantzunez, Leioako udal-gobernuak jakinarazi du zaborra biltzeko kamioien biltegia lekualdatuko duela. Gune hori bizilagunen etxebizitzetatik oso metro gutxira dago, horrek eragiten dituen usain eta zarata eragozpenakaz.

Aurreko urteko azaroan, auzuneko bizilagunek auzo-elkartea sortu zuten, eta zabor-kamioien kontuaz gain, beste hainbat arazo pairatzen dituztela salatu zuten: supermerkatuetara doazen kotxe eta kamioien trafikoa, Burger King jatetxeko usainak edo ondoko gasolindegiko ibilgailuak garbitzeko makinaren zarata, besteak beste. ◀

Lemoiz Bost urteko lana

Argiteria-publikoa berriztu dute energia-kontsumoa murrizteko

Lemoizko Udalak LED teknologiako bonbillak jarri ditu udalerriko hainbat eremutako argiteria publikoko 91 puntutan. Esku-hartze horregaz, bost urte eta 147.000 euroko inbertsioa behar izan duen prozesua amaitutzat eman du Udalak. Horri esker, energia-kontsumoan %50 eta %70 artean aurrezteaz gain, bide publikoen segurtasuna hobetzen lagunduko duela adierazi dute arduradunek, hemendik aurrera auzoetako argi-kantitatea hobeagoa izango baita. ◀



KALITATEZKO HEZKUNTZA EUSKARAZ

BETIKO IKASTOLA

www.betikoikastola.eus
Artatza auzoa, 84, (48940) Leioa
info@betikoikastola.eus
94.464.23.64

KONFIANTZAZKOA ETA HURBILA

- 0-16 adin tartea.
- Euskara eta euskal kultura onarri.
- Ingelesa Haur Hezkuntzatik.
- Guraso kooperatiba.
- Herritarra eta eraldatzailea.
- Autobus zerbitzua 2 urtetatik aurrera.
- Bertako janaria, ikastolan sukaldatua.
- Proiektu berritzaileak: Konfiantzaren pedagogia, EKI, KIVa...
- Irakasleen etengabeko prestakuntza eta inplikazioa.



Erudio Airearen kutsadura: protestak eta neurriak

Udalak airearen kalitatea aztertzeke ikerketa eskatu dio Tecnaliari

Erandiogoikoko bizilagunek mobilizazio berria egin zuten otsailaren 19an, Auzokoa Herriko Elkarteak eta Herri Bideak Kate Barik Elkarteak deituta. Bertan, kutsaduragaz amaitzeko neurriak har ditzaten eskatu zieten erakunde publikoei, inguruko lantegiek eragiten duten airearen kutsadura gero eta larriagoa dela salatu baitzuten. Gogoratu zuten 2014tik daramatela salaketak eta protestak egiten, baina jasotako emaitza beti izan da berdina: «Neurketak legezko parametroetan omen daudela diote, baina arazoak hor jarraitzen du».

Manifestazioan, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailari eskatu zioten aire- eta zarata-irurketak neur ditzan, eta inguruko enpresen jarduerak bizilagunei nola eragiten dieten az-

Salaketa

Erandioko Auzokideok elkarteak salaketa jarri du fiskaltzan, Arriaga auzoan jazotako kutsadura-usuri larri eta errepikatuengatik.

tertzeke; Udalari ere inplikatzeko exijitu zioten, eta bizilagunen eskariak kontutan hartu ditzan.

Horren harira, Erandioko Udalak Tecnaliari enpresari eskatu dio auzotarren salaketak berresteko ikerketa bat egin dezan. Horretarako, azken bost urteotan Sangroniz eta Arriagako airearen kalitatea neurtzeko estazio finkoek eta Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailak egindako bestelako azterketako datuak baliatuko dituzte.

Era berean, Erandioko Udalak adierazi du indarrean dagoen ingurumen-legeria betetzea eskatuko duela, indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren irismena eta edukia kontuan hartuta. Horretaz gain, bizilagunen atsedena bermatzeko beharrezkoak diren ikuskapen teknikoak egiteko prest ere azaldu dira. ◀

Erudio Asuako Auzokideok

Asua ibaia zeharkatzeko zubia berriro zabaltzeko eskatu dute bizilagunek

Erandioko Asua auzoan ibaia zeharkatu eta Sondikale industria-gunera sartzeko zubia segurtasun arrazoiengatik itxi zuten Udalak, bertatik kamioi astunak pasatzen baitira. Bertako bizilagunek eta langileek berriz ere zabaltzeko eskatu dute, hautabideak arriskutsuak direlako. Horregatik eta auzoko bizi-baldintzak hobetzeko Asuako Auzokideok plataforma sortu dute. ◀



Tartanga Berdeak kaleak hartu ditu.

Otsailaren 20an, ehunka erandioztarrek Tartangako zelaia «babestu» zuten bertan 400 etxebizitza eraikitzeke dagoen egitasmoaren aurka. Ohartarazi zuten Altzagako azken berdegunea babesteko borrokatuko direla.

BAPIRUKE

UDABERRIKO KOLONIAK
APIRILAK 11, 12, 13, 19, 20, 21 ETA 22

IZEN-EMATEA BIZARRA LEPOAN EUSKARA ELKARTEAREN WEBGUNEAN,
MARTXOAREN 15, 16, 17 ETA 18AN



Urduliz Santa Marina inguruan

Bertoko basoa hasi dira berreskuratzen

Lehen eukaliptoak nagusi ziren lekuan, gaztainondoak, lizarrak, haritzak, gorostiak eta bertoko beste hamaika zuhaitz hazten hasiko dira laster. Izan ere, joan den otsailaren 20an, mota horietako 900 zuhaitz inguru landatu zituzten Santa Marina inguruan, Tantik elkarteak egindako Haurtzaroko Basoa izeneko tailerragaz bat eginda. Horretan, 150 gaztek beste horrenbeste zuhaitz autoktono landatu zituzten Santa Marina inguruan. Tantik elkarteko Iratxe de Larak zehaztu duenez, umeek gaztainondoak, lizarrak eta haritzak landatu zituzten, arinen hazten diren bertoko zuhaitzak direlako; udal-langileek, aldiz, gorostiak, arteak, astigarrak eta urkiak, besteak beste. Hala, 900 zuhaitz berridun basoa haziko da laster bertan. ◀



Haurtzaroko Basoa ekimenean, neska-mutilek 150 zuhaitz landatu zituzten. CARLOS GIL



MARTXOAREN 7TIK 27RA



WWW.LORALDIA.EUS

LORALDIA

FESTIBALA

FESTIBALA 2022

HAUTSI ZEN ANPHORA!



* SARRERAK ESKURATU



8.

BABESLEAK

Bilbao

Bizkaia

LABORAL KUTXA

Gorliz Aldaketak errepideetan

Zirkulazio-aldaketak ezarri dituzte erdiguneko kaleetan

Udalerriko Larraganena Estrata, Talaia bidea eta Basotxu bidea kaleetako trafikoaren segurtasuna hobetzeko asmoz, Gorlizko Udalak bide horietako ibilgailuen zirkulazioa aldatuko du laster. Horrela, Talaia bidea kaleko zirkulazioa noranzko bakarrekoa izango da, eta Itsasbide kaletik sartuko da bertara. Era berean, Larraganena Estrata kaleko zirkulazioa norabide bakarrekoa izango da Urezarantza bidea kalerantz. Azkenik, Talaia bidea eta Basotxu bidea kaleetako zirkulazioaren noranzkoa aldatuko da. ◀

Plentzia Udal-azoka

Martxora arte atzeratuko da merkatuaren irekiera

Urtarrilean irekitzea aurreikusita zegoen arren, martxoaren lehenengo hamabostaldian zabalduko ditu ateak Plentziako udal-merkatu berriak. Joan den hilabeteetan eraikin hori eraberritzeko lanak egin dituzte eta, bertan lekutuko diren postuak esleitu ondoren, hura irekitzeko asmoa zuten arduradunek. Hala ere, azaldu dutenez, interesdunei dokumentazioa eskatzeko prozesu bat zabaldu behar izan dute, eta «horrek atzeratu du prozesua». Denera, udal-arduradunek jakinarazi dutenaren arabera, azokak sei salmenta postu izango ditu, bost urteko iraupena izango duten esleipenakaz. ◀

Gorliz Gazteen Abentura Txapelketa (GATX)

Gazteen artean euskara sustatzeko hamaika abentura egingo dituzte

Otsailaren 19an aurkeztutako GATX egitasmoak uztailaren 23ra arte iraungo du, eta eskualdeko 12-15 urte bitarteko gazteen 10 taldek parte hartuko dute txapelketan.



Mankomunitatea osatzen duten udalerrietako 100 gaztek parte hartuko dute. © GATX

Gorliz, Plentzia, Barrika, Lemoiz, Sopela eta Urdulizko 100 gaztek parte hartuko dute joan den otsailaren 19an aurkeztutako Gazteen Abentura Txapelketan. 10 taldetan banatuta, itsasoan, hondartzan, pinudian, mendian zein kaleetan askotariko esperientziaz gozatzeko aukera izango dute parte-hartzaileek, hala nola piragua, orientazio ibilbideak, eskalada, herri kirolak, surfa eta gaueko ibilaldiak. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, ekimen honen helburua

da 12 eta 15 urte arteko neska-mutil horien artean abentura eta esperientzia «paregabeak» eskaintzea, «betiere elkartasuna, errespetua, bizipoza, laguntasuna eta inguru-nearekiko zainketa balioan jarrita». Gainera, euskararen erabilera bultzatu eta baloratuko dute bereziki, «lagunekin euskaraz bizitzeko ekimen erakargarria proiektatu nahi izan dugu». Daborduko, txapelketa martxan dago, eta azkenengo saioa uztailaren 23an izango da, finala eta jaiak egingo duten egunean. ◀

HARTU BOLADA ONA GUGAZ. EMAIOZU BULTZADA ZURE NEGOZIOARI!

Zure enpresaren edo negozioaren urte osoko publizitate-kanpaina jaso gura baduzu ipini zaitez gugaz harremanetan: 944 911 337 / 688 811 368 • publi@hiruka.eus

Berango 38 kaleratze

Alconza enpresako langileek greba mugagabea hasi dute

Irizar taldeak Berango duen Alconza lantegiko beharginen heren bat kalera-tzeko egitasmoa du enpresak, sei urtez galerak izan dituela argudiatuz. Langileak horren aurkako greba mugagabea hasi dute; azaldu dutenez, urteak daramatzate lanpostu eta lan-baldintza duinak bermatuko dituen bideragarritasun industria-plan bat erreklamatzeko, «baina Irizar taldearen proposamen bakarria lanpostuen suntsiketa da, berrekite-plan baten aitzakiagaz». Beharginek deitoratu dute Alconzaren bideragarritasuna langileen lepora egin gura dutela.

Borroka luzea izango dela iragarri dute eta, horregatik, herritarren babesa eskatu dute, kaleratze horiekaz lanpostuak ez ezik eskualdean erreferentzia den lantegi baten etorkizuna ere kolokan dagoelako. Martxoaren 12an manifestazioa egingo dute Berangoko udal-txetik abiatuta, 18:00etan. Era berean, goiz zein arratsaldean enpresaren atarian egongo direla ere jakinarazi dute.

ERREFERENTZIAZKO ENPRESA. Irizar taldeak 2013an erosi zuen Alconza enpresa berangoztarra, taldeari balio erantsia emateko asmoagaz; izan ere, erosketa egin zuenean, lantegiak 250 langile zituen, eta erreferente bat zen merkatuan. Hala ere, beharginek salatu dute ordutik egin den «kudeaketa negargarriak» oraingo egoerara eraman duela Alconza: «Ordutik ez dute inolako inbertsiorik egin eta ez diote balio erantsirik eman Berangoko lantegiari. Irizar taldearen planak norabide bakarra izan du: etengabeko lan-baldintzen prekarizazioa».

Azpitarratu dute Alconza erosi zuenean kutxan zeuden 10 milioi euroak mozkinetan banatu zituela Irizarrek, eta «azken zortzi urteetan Irizar ez da arduratu erosi zuen enpresaz, ez baitute lan-kargarik ekarri».

Kaleratzeen eta egoera horren aurrean, langileek borrokatzeko prest azaldu eta otsailaren 28tik aurrera greba mugagabea bati ekingo ziotela iragarri zuten. Diote ez dutela lanpostuak suntsituko dituen egitasmo industrialik onartuko, eta gaur egungo eta geroko lanpostuak eta eskualdearen etorkizuna bermatuko duen egitasmoa bakarrik onartuko dutela. «Gure lanpostuen eta etorkizun duin baten defentsan guztiok elkarregaz borrokatzea da daukagun aukera bakarra», aldarrikatu dute. ◀



Gure ikasleen ahotan



«New Yorken egiten ari naiz Gradu Amaierako Lana, kristalezko hezurren gaitzari buruzko ikerketa talde batean»

Lander Manrique Braceras (Bilbo, 22 urte)
Mondragon Unibertsitatean Ingeniaritza Biomedikoko 4. maila egiten ari da; une honetan Gradu Bukaerako Lana egiten dabil.

Definitu apur bat zure burua: non egin dituzu orain arteko ikasketak?, baduzu hobby edo zaletasunik? Ikasketak urte gehienak Bilbon egin ditut. Unibertsitateko lehen hiru urteak Arrasateko campusean egin ditut eta azkena ERASMUS+eko programarekin atzerrian nago. Teknologia eta gadget-ak beti izan ditut hobby moduan, eskuko marrazketarekin batera. Kontaktuzko kirolak ere gustuko izan ditut azken urteetan.

Zergatik aukeratu zenuen Ingeniaritza Biomedikako gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea? Gradu hau aukeratu nuen gai asko jorratzen dituelako zientzia eta teknologiako arloan pertsonen eguneroko osasun arazo errealei konponbidea bilatzeko. Beraz diziplina ezberdinen aniztasun hori da erakarri ninduen. Mondragon Unibertsitatea aukeratu nuen praktikan asko oinarritzen den metodologia eskaintzen dutelako, hau da, kontzeptuak eta edukiak ez dira bakarrik ikasketako teoriakoan gelditzen (askotan gertatzen dena hainbat unibertsitatetan).

Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia? Jaso dudana esperientzia teorikoa eta bereziki praktikoa oso baliotsua da niretzat. Baita oso garrantzitsua izango da nire etorkizunerako Mondragon Unibertsitateak eman didan aukera GBLa kanpoan egiteko.

Nola definituko zenuke Goi Eskolan jasotzen duzun ikasketako metodologia? Proiektu eta lantaldeetan asko oinarritzen den metodologia bezala definituko nuke. Noski, azterketa eta klase teorikoak daude, baina garrantzi handia ematen zaie beste hauei ere. Honekin

argi ikusten dira Unibertsitateko kooperatibismoarekin zerikusia duten balioak.

Unibertsitateetik zer da gehien gustatzen zaizuna? Eta zerbait hobetzeko? Gehien gustatzen zaidana kurtso-bukaerako proiektuak dira. Bizitza laborala nolakoa den simulatzen duelako, lan taldeari eta organizazioari dagokionez, eta gehiago ikasten delako azterketekin baino. Aldaketak egingo nituzke edukiei dagokionez. Agian gai batzuk (zientziaren barruan) gehiago jorratu beharko ziren, biomekanika edo programazioa, adibidez. Eta beste batzuk gutxiago, enpresen egiturari eta burokraziari buruzkoak adibidez.

Atzerrian ari zara zure GBLa egiten. Non eta zeren inguruan ari zara lan hau garatzen? New York hirian nago egiten GBLa. «The City College of New York» izeneko unibertsitate batean, Manhattanen iparraldean kokatua. Osteogenesi inperfektuari (kristalezko hezurren gaitza ere deitzen zaio) buruzko ikerketa talde batean nago lan hau garatzen. Nik tendoiaren analisi biomekanikoa egiten dut bereziki eta horri buruz doa nire GBLa.

Zer nolako ekarpena egiten dizu Mugikortasun programak? Benetako esperientzia laborala ematen dit. Hainbat teknika berri ikasketako eta arlo biomedikoko profesionalak ezagutzeko aukera ematen du. Horretaz gain, kultura berria ezagutzeko aukera ematen du ere noski, nire kasuan Amerikako kultura.

Etorkizunari buruz zeintzuk dira zure asmoak? Ikasketak Ipar Amerikan jarraitu nahiko nituzke.

Begia eta bisturia Ina Gastaka Eguskiza

Irudiaren mendean, irudien menpean



Aurrerapenak egin diren arren, gazteengan eragina duten gaixotasun mentalen azterlanak sakonago ikertzeke dira. Txostenek diotenez, pandemiak geroztik adingabeen egoera okerrera joan da eta, horren harira, arazoaren gakoetako bat sare sozialak direla uste du Byung Chul Han pentsalariak.

Basurtuko Unibertsitate Ospitaleko (HUB) psikiatria zerbitzuak eginiko nerabeen osasun mentalari buruzko txostenak dio pandemiak geroztik adingabeen egoera okerrera joan dela.

Zaila izan ohi da gazteek pairatzen dituzten gaitzei buruz hitz egitea; izan ere, zenbat eta nagusiago izan, orduan eta aldapatsuago gertatzen da nork bere burua «gaztetzat» hartzea, eta, ondorioz, gure belaunaldikoak ez diren larruan kokatzea. Adituek diote jokabide autolitikoek eragindako nerabeen ospitaleratze psikiatrikoen gehikuntza mundu osoan gertatzen ari den fenomeno dela, alboko pandemia baltz bezala, eta zergatiak behin-behinekoak bada ere, hipotesiak egon badaude.

Gazteak dira, gizartearen gainerako kolektiboekin alderatuta, sare sozialen kontsumo handiena egiten dutenak. Hortaz, agerikoa eta kausala da haiek izatea menpekotasun horretatik min larriena hartuko dutenak. Hain justu, eurentzat zuzenduta baitaude, haieki menpekotasuna areagotzeko. Nori leporatu behar diogu, bada, egoera honen errua?

Azpiegitura horien arduradunek esango dute ez dutela inor behartzen sare horiek erabiltzera; halere, eragiten dituzten kalteak jakin arren, ez dute deus ere egiten erabilera



Han filosofo korearrak dioen legez, Facebook edo Google bezalako plataformak jauntxo feudal berriak dira. Nekaezinak gara, beren lurrak lantzen ditugu eta datu baliotsuak sortzen ditugu, eta gero haiek etekina ateratzen dizkiete. Aske sentitzen gara, baina erabat zapalduta eta kontrolatuta gaude, horretaz jabetzen ez bagara ere, batik bat, gazteak.

arduratsua eta helduago sustatzeko. Aitzitik, Zuckerberg-en azken asmoa da umeentzako Facebook bertsio berria sortzea, ondorioak ondorio eta gaitzak gaitz.

Irudien mendean, irudiaren menpe bizi gara. Eta ondorioak ikusgarriak izaten ari dira. Eragin handiena neskengan izaten ari da: HUBen txostenak dio azken urtean ospitaleratze psikiatrikoa behar duten nerabe gehienak neskak direla. Emakumeek izaten dute nerbio-anorexia gehien, trauma-osteko sintomak izaten dituzte gehien, eta gehien ospitaleraten direnak.

Horri helduta, Han filosofo korearrak dioen legez, Facebook edo Google bezalako plataformak jauntxo berriak dira. Nekaezinak gara, beren lurrak lantzen ditugu eta datu baliotsuak sortzen ditugu, gero haiek etekina ateratzeko. Aske sentitzen gara, baina erabat zapalduta eta kontrolatuta gaude, horretaz jabetzen ez bagara ere. «Mugikorra menderatzeko tresna bat da. Arrosarioa bailitzan jokatzeko du», eta arrazoia dauka eskuen mugimenduari erreparatuta *scroll* egiten dugunean. Irudiek duten boterea franko boteretsua da. Eta izaera heldugabe baten menpe izan dezakeena are indartsuagoa. Gureak eta bost ikusiko ditugu ez badiogu honi merezi duen arreta eskaintzen. ◀

irati
MODA GAZTEA ETA ARROPAK

94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com
Torrene, 2 48991 – ALGORTA

bai
Euskarari

GetxoGasol

Urteko 365 egunetan gaude zabalik

- Garbiketa gunea
- Denda eta okindegia
- GnG tailerra
- Solaguren Jatetxea

☎ 944 301 500

📍 Getxo eta Berango artean

GetxoGason Euskararekin bat!

Barneratutakoa askatzen Ainhoa Ortells

Lobo:

Palet bati esker, maitatuak sentitu ginen biren istorioa. Hurbiltasunak maitasuna ematen duela ez ahazteko.



Zaindu maite duzun hori:
Bizitza.
Herria.
Mundua.
.....

25 urte nituela, Beijing-era joan nintzen denboraldi batez. Arte Ederretan lizentziatu berri nintzela, han arte munduaz ikasteko aukera eman zidaten, eta aurrera jo nuen. Ez zen erabaki erreza izan, guztiz ezezaguna egiten zitzaidan mundu batetara joateko nahia izanda ere, beldurra ere hurbil zegoelako. Zer topatuko ote nuen han? Zeintzuk topatuko nituen? Txinatarrez ez nekien hitz egiten, lau agur eta hamar zenbaki baino ez... eta irakurketaz ezer ez... Bffff

Ailegatu zen eguna hala ere, baietz esan ostean, aireportuan geunden nire bidai txinatarrari hasiera emateko.

Orduak izan ziren, asko... hegazkinez... norantz nindoan oso argi ez nuela... Bidetik nire lehen hitz txinatarrak esateko aukera izan nuen: lehen «*xie xie*»-a, «*nihao*» pare bat, eta lauzpabost gehiago. Nahiz eta nire ahoskera ez zen oso fina... ulertu ninduten gehienetan.

Txina gero eta hurbilago zegoen.

Eta ni gero eta urduriago.

Orduan ailegatu ginen hiru hilabetez nire etxea izango zen horretara. Ehun eta piku artista bizi ziren ghetto antzeko horretara. Beijing hiriaren inguruetan, 318 izena zuen «herrialdetxora».

Hasiera ez zen erraza izan. Nik ez nuen esperientzia asko etxetik hain urrun eta bakarrik; galduta nabilen, ez nekien nori hurbildu.

Hirugarren edo laugarren egunean, kriston zaparrada

izan genuen gualdean, lo egitea ere zail egiten duen horietarikoa. Amets gaizto baten erakoa...

Goizez, esnatzerakoan, beheko partera joan nintzen (logela goialdean zegoen, baina beste dana behealdean: estudioa, sukaldea eta komuna). Eskailerak jaisten nabilela, nire atarian otso bat ikusi nuen (*cosas de China...*).

Guztiz bustia dardarka, nire estudioko sarreran zegoen paleta aprobetxatzen 5-10 zentimetroko ur-putzuak zeudela bere inguruan.

Beregana hurbiltzen nindoala (atea kristalezkoa zen, ikus kontaktua konstantea zen), bera atzeraka egiten hasi zen, uretara berriro. Ez zen hori nire nahia, paletetan gustura bazegoen, berarentzat izango zela argi neukan. Zeukan tamaina handia zuela ere, ez zidan beldurrik ematen, enpatia asko sentitu nuen bere bakartasun eta beldurra-ekin. Egun horretan, atetik 10 metrora egin nuen bizitza, Lobok paletaz disfrutatu zezan.

Orditik aurrera bisitan etortzen zitzaidan. Beti 5-10 metroko distantzia batekin, baina estudiora etortzen zen nire bila: «*guuuuufff*». Ni paletetan esertzen nintzen zigarro bat erretzera, eta, bitartean, nire kontuak kontatzen nizkion. Berak buztanaren mugimenduekin ematen zizkidan erantzunak. Oso adi entzuten zituen nire istorioak. Euskaraz kar kar.

Beharrera bueltan joan behar nuenean, ura eta pare bat gozoki uzten nizkion paletetan, eta berak bueltan arrainak ekartzen zizkidan. Alboko errekan harrapaturikoak kar kar (inguruko katuek asko eskertu zuten.)

Beldurraekin asko lagundu ninduen Lobok. Orditik, beste era batean ikusten ditut erlazioak. *No siempre es malo verle las orejas al lobo.* ◀



errigora

errigora.eus

martxoak 10 - 30

Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura

Oinak lurrean

Oliba-olio birjina estra, kontserbak, arroza, pasta eta lekaleak euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan.



Bete ezazu despentsa urte guztirako




A black and white photograph of a woman with dark hair, smiling broadly and holding a camera up to her eye as if taking a picture. The camera is a silver and black model with 'MINOLTA' and '40481' visible on it. The background is a bright, out-of-focus outdoor setting.

Olatz Vázquez, borroka amaiezina

Argazkilari eta kazetari sopeloztarra 2021eko irailean zendu zen, 27 urte zituela. Minbiziaren aurkako borroka luze eta gogorra pasatu zuen, eta osasun sistemaren arazoak gogor salatu zituen bidean. Zioenez, gaztea izanagatik, eta pandemiagatik zein osasun zerbitzuen baliabideen eskasiengatik, berandu topatu eta diagnostikatu zioten gaitza. Borrokalari sutua, bizi izandakoa zabaldu zuen Olatzek, iruditan, eta orain, bere familiak argazki horien erakusketak eta minbiziaren aurkako proiektua jarraitu ditu bere omenez; gurean ere omenaldi txikia egin gura izan diogu.

TESTUAK: HODEI TORRES ARGAZKIAK: OLATZ VÁZQUEZ











Lehen/Orain **Bizkaia Zubia, XX. mendearen hasieran**



ITURRIA: MEMORIAS DE GETXO

Uribitakora



TESTUA

Beñat Vidal
Gurrutxaga

DOINUA

Mundu honetan
holako gauzak

ARGAZKIA

Hodei Torres

Errutina

*Gosaldu eta eguneroko
erritu guztiak, amen.*

*Luze egiten zaizkit orduak,
ordu erdi, ordu laurden...*

*«Aizu, banoa. Errekaduak
egin behar ditut han-hemen...»*

*Gogoratu naiz, eta eskerrak,
itxura egitearren
patrikan sartu dudan poltsa hau
etxetik irten baino lehen.*

*Erantzun ez dit egiten baina,
urduri jartzen naiz beti.*

*«Gizona! Trankil egon hadi ba,
heure buruaz errukil!»*

*Noan ba Luisen tabernara, hark
zer behar dudan badaki.*

*Katilu salda ardoarekin,
gorputza sano eduki.*

*Goiz da, saldarik ez badu ere
ardoa soilik ederki.*

*Euririk gabe euritakoa...
gaur ez nabil oso trebe!*

*Lehen tragoa arin behar dut,
egingo baitit mesede.*

*Ardoa nire egin dezadan
eta ardoak ni bere.*

*Gero etxean bazkaltzen ez dut
edukiko, hala fede,
bazkalaurretik edan beharko dut
bazkalordukoa ere.*

ALBE

Algortako
Bertsolari
Eskola



Tania Azueta Portillo

Nongoa

Itzubaltzeta/Romo.

Adina

29 urte.

Zertan dabil


Lanean.

Noiz heldu zinen?

2016ko maiatzean.

Noiz arte?

Hilabete batzuk barru bueltatuko da herrira.



Lurraldea

Costa Rica.

Azalera

51.100 km².

Hiriburua

San José.

Biztanleria

5.213.362 (2022).

Hizkuntzak

Hizkuntza ofiziala gaztelania da, baina Jamaikako ingeles kreolera ere hitz egiten da. Halaber, txibtza familiako bribri, kabekar, maleku, guami eta bokota darabilte.

Moneta

Colón.

«Munduko zatitxo hau nire bigarren etxetzat izango dut beti»

IKER RINCON MORENO ►

Arte Ederretako fakultatean Sorkuntza eta Diseinua ikasi ondoren, bizi-esperientzia berri baten bila joateko hartu zituen mailetak 2016an Tania Azueta itzubaltzetarrak. Hala, Ozeano Atlantikoa gurtzatu eta Costa Rican amaitu zuen, lagun batek gomendatuta: «Herrialde honetaz mintzo zidan, eta gustuko zitzaidala esanez, etortzera animatu ninduen». Ordutik, hainbat lanetan ibili da han, hala nola ostatu bateko harreragile edo bitxi-denda bateko arduradun gisa. Duela urtebetetik, aldiz, bitxigintza-marka batentzat dabil produktuak diseinatzen eta sortzen. «Oso gustuko dut nire lana, diseinuak sortzeko askatasuna dudalako eta gaitasun artistikoak garatzeko aukera ematen didalako». Halere, aitortu duenez, hilabete batzuk barru Euskal Herrira bueltatzeko asmoa du.

Dioenez, orokorrean, abentura, natura eta animaliak ikustera joaten dira turistak Costa Ricara; «nagiak, iguanak, tukanak eta congoximuak ikus daitezke egunero hemen». Bera

bizi den Puerto Viejo herriari dagokionez, surfa maite dutenentzat toki paregabea dela dio, «arrezifeen artean sortzen den *Salsa Brava* izeneko olatu famatua baitago hemen». Herri txikia izanik ere, gainera, giro handikoa da. «Gaue-ro, musika zuzenean entzuteko eta dantzatzeko tabernak daude. Jai giro paregabea dago». Musikari helduta, calipso-a da tipikoa han, eta reggae, dancehall eta soca motako doinuak bazter guztietan entzun daitezke baita ere.

Jan-edanari helduta, kokoa da hango protagonista. Plater tipikoenak dira *rice and beans* edota *ron don* zopa, «biak koko esne naturalarekin kozinatuta». Zukuak ere edonon eta edonoiz edan daitezke han, «tamarindo, *hiel* edo *flor de Jamaika* izenekoak dira ezagunenak».

Eguraldiari dagokionez, eguzkia eta beroa nagusi dira Costa Rican eta, ondorioz, «beti izerditan egotera ohitu behar zara». Halere, eurite-sasoiak ere baditu, abendu-urtarrilean eta uztail-abuztuan. «Garai horietan itsasoak gora egiten du, eta surfa egiteko sasoi onak dira. Esperientzia polita eta ezberdina izan daitezke edonorentzat herrialde hau bisitatzea». ◀



Josune Muñoz Skolastikako kidea

«Sorgin hitza deabrutzea indarkeria sinboliko itzela izan da»

Sorgin-ehizaren atzean zeuden benetako arrazoi politiko eta ekonomikoak aztertu zituen bere hirugarren saioan Getxoko Skolastika Feminismo Mintegiak. Horretarako, besteak beste, inguruotan ezezaguna den adibide bat aztertu zuten: Durangoko emakumeen jazarpena eta erreketak XVI. mendean. Horren inguruan jardun gara Josune Muñoz filologo eta ikertzaileagaz.

TESTUAK: IKER RINCON MORENO ARGAZKIA: HODEI TORRES ►

Hasteko, zer edo nor da sorgin bat? Gauza bat da zer den sorginen benetako esanahia eta horren barruan zer gordetzen den, eta beste bat urteetan edo mendeetan zehar eman dioten esanahia. Sorgina zen, printzipioz, sortzen zuena, belagile moduan ere, edota sendabelarrak erabiltzen zituena; emakume laguntzaileak ziren, erditzerakoan edo gaixotasunei aurre egiten ibiltzen zirenak, besteak beste. Baina, tamalez, sorgin-ehiza dela eta, guztiz zentzu negatiboarekin heldu zaigu sorginaren esanahia.

Denok ditugu buruan akelarreen eta sorgin-ehizen irudiak, baina zer puntutaraino da iruditegi hori erreal? Iruditegi hori literarioa da; hau da, elizgizonek idatzitako liburuetan agertzen hasi zen. Haiek deskribatu zituzten lehendabizi, eta haiek sortu zuten irudi hori. Gerora, irreal zen iruditegi hori erreal bilakatu zen sorgin-ehizaren eta torturaren bitartez. Europako erdialdeko elizgizon handiek deskribatu zituzten balizko akelarre horiek, eta manual moduko bat sortu zuten. Oso ondo deskribatu zuten zeintzuk galdera egin behar zituzten, zeintzuk ziren aurkitu behar ziren akelarreak, etab...

Eta zeintzuk ziren bilatzen zituzten akelarre horiek? Elizgizon haiek deskribatzen zituzten gauak; gau haietan, jende-multzo bat, su bat,

Getxoko Emakumeentzako jabekuntza Eskolaren egitarauaren barruan, Skolastika Feminismo Mintegia egiten ari dira hilabeteotan. Joan den urtarrilaren 20an egin zuten hirugarren saioa, «Nork die beldurra sorginei» titulupean, Josune Muñoz filologo eta ikertzaileak gidatuta.

eta horren inguruan dantzan dabilen jendea, biluzik. Erdian, gizonetzko bat edo gizon-itxurako deabru bat, edo deabrua bera, irudikatzen zuten, zeremonia-edo horretan gauza diaboliko-sexualak emango balira bezala. Azken finean, haiek deskribatu zuten gaur egun guk pelikula, liburu eta bitarteko ezberdinetan ikusten ditugun akelarre horiek.

Gainera, oso iruditegi morbosoa da hori, garaiko pornografiarekin oso lotuta zegoena. Liburuetan agertzen ziren iruditegi horiek oso-oso arin bihurtu ziren irudi. Nik uste dut apaiz haien frustrazioa edo morbositatea piztuta edo piztekotan zegoela.

Zergatik sortu zuten iruditegi hori, eta zergatik jo zuten pertsona zehatz batzuen kontra? Gai honen inguruan mugarrria den liburu bat dago: *Caliban eta sorgina*. Horretan, idazleak azaltzen du iruditegi hori sortzeko arrazoiak politikoak izan zirela, hau da, heretikoaren kontra jotzeko eta kristautasuna inposatzeko.

Hitzaldian azaldu nuen bezala, Inkisizioa ez zen martxan jarri sorginak erretzeko, baizik eta heretikoak akabatzen. Eta argitu behar da ere zer den heretiko bat eta zein den horren benetako esanahia, hori ez dagoelako lotuta bakarrik erlijio edo espiritualitatera. Heretikoak izan zitezkeen estatuarekiko harreman tirabiratsua zutenak, zergak ordain-

tzeari uko egiten ziotenak eta soldaduskara joaten ez zirenak, besteak beste. Gaur egun, heretiko hitza darabilgunean espiritualitatearekin lotzen dugu bakarrik, baina ez da guztiz egia. Horren oso adibide garbia dugu gure inguruan, Durangon, hain zuzen ere.

Hala, printzipioz, sorgin-ehiza edo heretiko-ehiza horien bitartez estatuak edo Elizak lortu nahi zutena zen bizimodu politiko eta ekonomiko bat inposatzea.

Aurretik esan legez, sorgin berba sortzeak edota jaiotzak eragiten dituenari izendatzeko erabil zitekeen, besteak beste; bada, zergatik erabili da berba hori gauza «gaizto» edo «maltzur» bat izendatzeko? Batetik, emakumeen ohiko zeregina negatibizatzeke. Emakumeen zeregin horien bitartez zeuzkaten askatasuna, autonomia, independentzia eta erabakitzeke aukerak bertan behera utzi nahi zituzten. Orduan, hor badago errealtate politiko-ekonomiko bat hitzarekin deabrutzen dena, hau da, emakume-eredu bat maltzurtzen dena. Eta emakume horiek gutxi batzuk baziren ere, gerora, emakume guztien kontrako ondorioa izan dugu, eta badugu oraindik ere. Hau da, sorgin hitza erabiltzea guztiz baliabide misoginoa da emakume guztien kontra jotzeko.

Romon egindako hitzaldia ikasturte oso baten formakuntzaren hirugarren saioa izan zen eta, lehenengoan, emakumeen kontrako indarkeriak aztertzen eta lantzen egon ginen. Orduan, ikusi genuen sorgin hitzaren deabrutzea, hain zentzu negatiboa hartzearena, guztiz indarkeria sinbolikoa dela. Beraz, emakumeen kontra egiteko baliabide sinboliko oso indartsu bat garatu du patriarkatuak, mendeetan zehar mantendu dena, gaur egunera arte.

Gure inguruan, euskal gizartean, Anbotoko Mari izeneko «sorgina» dugu mitologian. Zer kontu dezakezu izaki horren inguruan?

Anuntxi Aranek begirada feminista batekin aztertu du mitologia Euskal Herrian, eta berak idatzitako *Mito hurbilak* liburuan kontatzen du Anbotoko Mari oso berria dela, eta ez guztiz zuzena. Ahozko literaturara jota, Anbotoko Dama dela dio, gure antzinako mitologiaren pertsonaia nagusienetarikoa. Halaber, gogoratzen du Anbotoko Dama dela zeruko eta lurreko jainkosa nolabait, koba batean bizi dela eta zerutik mugitzen dela. Esaten du ere urteetan zehar Mariren bilakaerarekin kontuz ibili beharra dagoela, baina, haren historia ikertu duten Barandiaran, Azkue eta Caro Barojarekin bat etorrira, argi uzten du Anbotoko Damaren zentzu positiboa.



Skolastika Feminismo Mintegia gidatzen du Josune Muñozek eta,

Skolastika Feminismo Mintegia

«Skolastika emakumeen kultura berreskuratzeke, aztertzeke eta lau haizeetara zabaltzeke gune bat da. Horretarako, denetarik egiten dugu: formakuntzak, hitzaldiak, mintegiak, erakusketak...»

Sorginen ehizara bueltatuta, zelakoak izan ziren eraso horiek Euskal Herrian? Gurean gehien landu dena da Zugarramurdikoa, baina Bizkaian ere ehizak egon ziren, eta niri oso harrigarria egiten zait Zugarramurdin baino jende gehiago hil zutela hemen, bortitzagoa izan zela eta, hala ere, ez dela hain ezaguna. Nik Durangoko adibidea jartzen dut, horixe delako inportanteena, eta ezezagunena aldi berean, oso gutxi ikertu dutelako horren inguruan.

1500ean, Inkisizioak 40 pertsona epaitu zituen Durangon, horietatik 11 kondenatu zituzten; 10 emakume eta gizon bat. Dozena erdi, aldiz, adiskidetu ziren zigor fisikoarekin eta isunekin. Baina gogorrena da zazpi emakume hilda zeudela epaiketa izan zenerako, torturen bitartez hil zituztelako, eta horien gorputzak hilobitik atera, hilda erre eta errautsak haizetara bota zituztela. Inpaktu handiko erabakia izan zen. Durangon gerta-



Getxon egindako hirugarren saioan, «Nork die beldurra sorginei» titulupean, sorgin-ehiza landu zuten.

tu zena ez zen sorgin-ehiza izan, baizik eta heretiko-ehiza.

Zer egozten zieten Durangoko gizon-emakumei? Heresiak beti dira antzekoak eta, kasu honetan, zeuden: kutsu ekonomikoa, ezetz esaten zioten zergak ordaintzeari; harremanetarako kutsua, ezetz esaten zioten Elizak inposatutako monogamia-ereduari; eta kutsu sexuala, planteatzen zuten sexu askea edo bikoterik gabeko sexua. Durangokoan bazegoen arrisku handia, normalean sorgin-ehiza emakume edadetu, ezkongabeak, txiroak eta aurretik esandako lanbideetan aritutakoak izaten zirelako. Baina, kasu honetan, emakume batzuk ezkontutakoak ziren, gizondunak, baina gizonak utzitakoak. Beraz, oso harrigarria izan zen Durangon gertatutakoa, oso labankorra.

Gainera, azpimarratu behar da jaurerriko jaunak eskatu zuela prozesua abiaraztea,

Getxon egindako mintegiak

«Getxon egindako formakuntzan mugimendu feministatik, baina batez ere teoria feministatik, hausnartzen eta aztertzen ari diren azkenengo gaiak jorratu ditugu: emakumeen kontrako indarkeriak, maitasun eredu ezberdinak, sorgin-ehiza, eta emakumeen kultura»

eta ondoren etorri zela Eliza. Beraz, argi dago epaiketa politiko bat izan zela.

Katalunian ehiza edo jazarpen horiek eragindako kalteak nolabait aitortzeko prozesua abiatu dute orain gutxi, ezta? Bai, gai honi ematen ari zaion tratamendu berria gelditzeko etorri da. Kataluniaren kasuan, eremu politikotik salatzen hasi dira sorgin-ehiza izan zela misoginia eta emakumeen kontrako indarkeria politikoa, eta berreskuratu nahi dituzte eraildakoen izenak kaleetan eta plazetan ipintzeko. Nolabait, konpentsazio sinbolikoa biltzen ari dira. Hala, Katalunian onartu dute Estatutik zetorren jazarpen bat izan zela, eta «feminizidio» hitza aipatzen ari dira uneoro.

Zein izan da emakumeekiko jazarpen horren ondorioa gure gizartean? Ondorioak oso latzak izan dira. Emakumeen askatasun-bideak akabatu zituzten, eta Estatuak zein Elizak nahi zituzten eredu estu eta misoginoak inposatu zituzten. Emakumeek kanpoan eta esparru publikoan zuten papera ezabatu zuten, eremu pribatura konfinatuz. Gainera, badago beste kontu bat, gizarte osoarentzako kaltegarria izan zena: emakume horiek zuten jakituria ia osoa galdu egin da. Galera oso handia da.

Gaur egun, nor izango litzateke sorgin bat, edo zer egin beharko luke pertsona batek sorgin gisa identifikatzeko? Sorginen ehizarekin kontra zegoena edo ezberdina zena ezabatzeke metodologia garatu zen. Edonor izan daiteke sorgina. Emakumea bada, emakume «on» bat ez den guztia da sorgina. Baina ez da egia, ez dagoelako eskapatzerik. Zintzoa, bidezkoa eta esanekoa izan arren, ezberdinak izango gara beti. Inposatu nahi diguten emakume-eredua ez da existitzen, ez da egiazkoa. Ez dakit zenbat aldiz entzun behar izan duan nik halakorik; askotan...

Halere, jazarpen hau emakumeoi bakarrik kezkatu behar zaigula dirudien arren, ez da hala izan behar. Dena ondo aztertuta, ikus daiteke botereak zeintzuk modu eta egitura jartzen dituen martxan jendearen kontra egiteko. Gaur nire kontra jo dezakete emakumea naizelako, baina baliteke bihar zure kontra egitea, ezberdina zarelako.

Bada, nork die beldurra sorginei? Galdera horregaz izendatu zenuen Getxon eskaintako hirugarren berbaldia; zein da horren erantzuna? Boteredunek; botereak dio beldurra ezberdina denari, dela sorgina, dela heretikoa, dela beltza, dela kanpotarra... Beraz, boterea galtzeko beldurra duen edonork du beldur hori. ◀

Lohitzune Rodriguez Uribe Kostako Korrika arduraduna

«Hitzaren eta ekintzaren urteak lehen puntu gisa jarriko du agendan euskara»

IKER RINCON MORENO ▶

Uribe Kostatik apirilaren 7an igaroko da Korrika; halere, bezperan, Erandio zeharkatuko du, 19:00etan, Bilbora bidean. Daborduko martxan hasi dira herriz herri ekimena antolatzeko batzordeak, eta horren aurkezpen handia egin zuten otsailaren 26an Areetan. AEK-ko kide Lohitzune Rodriguez da Uribe Kostako Korrikaren koordinatzailea, eta euskararen aldeko egitasmo horren inguruan aritu gara beragaz.

Lau urteren ondoren, bueltan etorriko da Korrika apirilean. Zelakoa izan da ekimenak utzitako hutsunea urteotan? Pandemia orokorra izan denez, ez da horrenbeste nabaritu maila sozialean. Zenbaitek faltan bota dute, baina, orokorrean, bertan behera gelditu zen beste gauza bat izan da. Halere, ekonomikoki eragin handia izan zuen AEKrengan eta, ahal izan dugun bezala, neurriak hartuta, aurrera egin dugu jakinda aurten jada, nola edo hala, Korrika egingo genuela.

Pandemiak eragina izan du euskararen erabileran inguruotan? Daturik ez daukat, baina, azkenaldian, iruditzen zait inguruko herrietan, gazteen artean behintzat, euskara gehiago entzuten dela. Suposatzen dut urte askoko lanaren emaitza dela, ez gurea bakarrik (AEK), baizik eta euskalgintza osoak egindakoagatik.

Aurten, euskararentzako plaza erraldoi bi egongo dira: Korrika eta Euskaraldia. Zela-



Korrika ezinbestekoa da herritarrei euskara ikasteko aukerak emateko. HODEI TORRES

«Espero dugu Euskaraldia nahiz Korrika gogotsu itxaron dituen herriak bultzatuko duela administrazioa, euskalduntzearen eta normalizazioaren bidean, neurri eta konpromiso berriak hartu eta betetzera»

koa aurreikusten duzu urtea? Bai Topaguneak bai AEKk adierazi zuten «hitzaren eta ekintzaren» urtea izango zela; hau da, nola-bait hitzen bidez ekiteko urtea eta, aldi berean, hitzetik ekintzetara pasatzekoa. Nik uste dut izango dela urte bat instituzioei ere konpromiso gehiago eskatzekoa.

Zeintzuk pauso eman daitezke Uribe Kostan hori lortzeko? Alde batetik, garrantzitsua da jendea aktibatzea. Izan ere, herriak behartzen ditu makina handiak mugitzera; herriak mugiarazten ditu. Orduan, gure ustez gakoa beti dago herrian. Hala, garrantzitsua da jendearekin hitz egitea, gure antolaketan parte hartzea eta dinamiketan barneratzea; elkarlanean aritzea, azken finean. ◀

Biharko mundua euskaraz • Biharko mundu berdinzalea • Biharko mundu jasangarria

Biharko mundua gaur eta hemen

Batzilergo matrikulazioa
Martxoaren 28-tik
apirilaren 8-ra

ANDER DEVNA
IKASTOLA

SOPELA | 946 76 02 66 | info@anderdeuna.eus | www.anderdeunaikastola.eus

Nerea Elizalde *Go!azen* telesaileko aktorea

«Zortea izan dut gaztetatik gustuko nuen gauza batean lanean hasi nintzelako»

ANDER ZARRAGA ▶

Garazi pertsonaia interpretatzen du Nerea Elizalde (Bilbo, 1998) aktoreak *Go!azen* ETB1eko telesail ospetsuan. Zortzigarren denboraldian audientzia historikoak eskuratu ondoren, Euskal Herri osotik eramango dituen birari ekin diote; tartean, Sopelako Urko kiroldegia bisitatu zuten joan den otsailaren 27an.

Go!azen 8.0 denboraldia amaitu ondoren, bira egiten ari zarete. Nolako izango da? Telesailaren azken denboraldia duela aste batzuk bukatu zen, baina gu hemendik hara gailtza emanaldiak egiten Euskal Herri osoan. Normalean, hamar aktoreetatik sei joaten gara kontzertuetara, baina nahiko nekagarria izaten da. Maiatzera arte horrela arituko gara, uda hasieran hurrengo denboraldia prestatzen hasiko baikara.

Arte dramatikoa ikastea erabaki zenuenean zure burua *Go!azenen* imajinatzen zenuen? Ez nuen imajinatu ere egiten. Txikitan ikusten nuen, eta nire ametsetako bat zen *Go!azen* edo *High School Musical* bezalako batean amaitzea. Gerora, nagusiagoa egin eta lanean hasi nintzenean ez nuen espero, antzerkiaren bat-batekotasuna gehiago gustatzen zaidalako. Hala ere, apuntatu nintzen dutxan abes-
tea eta gitarra astintzea gustatzen zaidalako; ez dut Danae edo Maria bezain ondo abesten, baina saiatzen naiz. Oso esperientzia ona izan da hasiera-hasieratik.



Elizaldek denboraldi bi egin ditu *Basakabin*, 2020an sartu baitzen telesailean. N.E.

Go!azen 9.0 denboraldi berria

«Konfirmatuta dago ekainean hasiko garela denboraldi berria grabatzen, eta Garazi nahiko probablea da bueltatzea, baina, momentuz ezin dizut ezer gehiago esan»

Zer ikasi duzu denboraldi bi hauetan? Batez ere emozioak kudeatzen. Filmatzen ari garenean sekulako estresa eta nekea dago lantaldean, baina elkarri laguntzen diogu.

Aurretik, antzerki, pelikula eta telesailetan ibili zara; nolako izan da zure ibilbidea? Batxilergoan nengoenean, Pabellón 6 guneko casting batera joan nintzen, Ramon Barearen zuzendaritzapean Euskal Herriko lehen gazte konpainia sortzen zebiltzalako. Proba egin eta Mercucioaren papererako hartu ninduten *Romeo eta Julieta* antzezlanean. Gero, *Treblinkara azken tren*a antzerkirako deitu ninduten; 200 bolo baino gehiago egin genituen, eta izugarrizko esperientzia izan zen. Hortik, hainbat lan atera zitzaizkidan, tartean, TVEko *Play* plataformarako telesail interaktibo bat. Horrek ere boom handia izan zuen. ◀





usikatuak

HIRUKAREN musika-atal berria!

Hamabostean behin, eguenetan, erreprodukzio-zerrendak argitaratuko ditugu webgunean, askotarikoak, kolaboratzaileek eurek sortutakoak

www.hiruka.eus

Martxoa-apirila

Erandio

Martxoak 7, astelehena

Manifestazioa

19:30 | Josu Murueta plazatik

Astrabuduko Talde Feministak deituta; ondoren, Sökole taldearen kontzertua.

Martxoak 8, martitzena

Elkarretaratzea eta adierazpenaren irakurketa

12:00 | Irailaren 23a plazan

Elkarretaratzea

12:00 | Josu Murueta plazan

Asociación Mujeres de Astrabudua.

Ginkana

17:00 | Ausartzen, Altzagan

«Emakumeak eta zientzia».

Danborrada morea

18:30 | Euskadi plazan

Auzokoi Herriko Elkarte.

Martxoak 10, eguena

Txotxongiloak: Etxeko gauzak

17:30 | Caritas Erandio

Txokolatada ere egongo da.

Berbaldia: «Nesketatik emakumeetara zientzian»

18:00 | Josu Murueta kultur etxean

Dokumentala: Lotsariak

19:00 | Erandiogoikoa gizartetxean

Erandioko Damatxoak Emakumeen Elkarte.

Martxoak 20, domeka

Antzerkia: Lehendakari gaia

19:00 | Josu Murueta kultur etxean

Iker Galarza eta Zuhaitz Gurrutxaga arazoak dituen lehendakaria baten azalean jarriko dira.

Getxo

Martxoak 8, martitzena

Manifestazioa

19:30 | Telletxe plazatik

Algortako Mugimendu Feministak deituta.

Martxoak 11, barikua

Uribe Kostako Bertsolari Txapelketa

18:30 | Itzulbatzeta/Romon

Tabernetan zehar egingo dituzte lehen hiru kanporaketak.

Martxoak 12, zapatua

Dantza-plaza

19:00 | Eskoletako plazan, Areeta

Bertako dantza taldeen eskutik.

Martxoak 12, zapatua

Musika: Anari

19:30 | Muxikebarri Antzokian

Martxoak 16, eguaztena

Musika: Laboa Jazz

19:30 | Muxikebarri Antzokian

Mikel Laboaren musika jazz moduan moldatuta.

Martxoak 20, domeka

Dantza: LOF Ladies on Fight

19:00 | Muxikebarri Antzokian

Emakumezkoen borroka libreko ikuskizuna.

Martxoak 20, domeka

Antzerkia: Tarara

19:30 | Muxikebarri Antzokian

Tarara, gaueko lanetan aritzen den emakume prostituta da lagun mamuen aurkako borrokan.

Martxoak 25, barikua

Arrigunagako barikuak:

Dientes de Luna

21:00 | Muxikebarri Antzokian

Martxoak 26, zapatua

Musika: Currents by Mayumana

16:30 | Muxikebarri Antzokian

Perkusioari gehitutako soinu elektronikoak.

Martxoak 26, zapatua

Dantza: Mayumana

19:00 eta 21:00 | Muxikebarri Antzokian

Nazioarteko musika eta dantza talde ezaguna.

Martxoak 27, domeka

Pirritx, Porrotx eta Marimotots: Kuikui

16:30 | Muxikebarri Antzokian

Leioa

Abenduak 8, martitzena

Manifestazioa

19:30 | Boulevardetik

Sutea Leioako Gazte Talde Feministak deituta.

Martxoak 11, barikua

Kontzertua: Wax & Boogie

20:30 | Kultur Leioan

Kataluniako Rhytm & Blues eta Boogie Woogie panoramako talderik onenetakoa.

Martxoak 18, eguena

Antzerkia: Alderray (pertsoneien ehiztaria)

20:30 | Kultur Leioan

Patxo Telleria eta Mikel Martinezen obra.

Martxoak 23 eta 30

Zinegoak

19:00 | Kultur Leioan

Gaylesbitrans nazioarteko zinema eta arte eszenikoen jaialdia.

Martxoak 25, barikua

Antzerkia: Zehar

20:30 | Kultur Leioan

Itxura, emozio, bizipen eta ikasgai ezberdinetan, pertsona baten eraldatzeen lekuko izateko bidaia.

Lemoiz

Martxoak 7, astelehena

Yoga tailerra

16:30 | Armintzako kultur aretoan

Ahalduntzea gorputzetik hasten dela erakutsiko du Sandra Arroyo Cruz dinamizatzaileak.

Martxoak 8, martitzena

Adierazpen instituzionala

13:30 | Lemoizko udaletxearen atarian

Plentzia

Martxoaren 25era arte

Erakusketa: Emakumeen begiradak

Goñi Portalen

Emakume plentziarrek egindako artelanak ardatz.



Sartu HIRUKA.EUS webguneko Agenda atalera eta ikusi Uribe Kostako jardura gehiago.



Adi martxoaren 8an eskualdean egingo diren deialdiei! Jarraitu egitarau guztia HIRUKA.EUS webguneko atal berezian

Ginger

«Laurok Putzuzulo gaztetxean ibilitakoak gara»

TESTUA: ASIER BARRUETABEÑA RIVALLO

ARGAZKIA: GINGER ▶

Euskal kostaldeko errepideetan barrena, ametsetako olatu siku zein handi horren atzean, gure beste ametsetako fabrika baten zaratarekin egin dugu topo, Ginger laukotea buru.

Nortzuk osatzen duzue Ginger? Nerea Altxu, Andrea Lopetegi, Gorka Larrañaga eta Jone Azkoaga gara, zarautzarrak denak, eta talde ezberdinetatik gatoz: MKT, Iñor ez, Pottors ta Klito, Mor more... Dena dator Mor more utzi eta gero, zerbait kañeroagoa egin nahi genuelako. Altxukin juntatu eta kantak egiten hasi ginen. Ostean, Gorkari komentatu eta sei kanta sortu genituen, 2021ean grabatu genituenak. Oraindik ez dugu zabaldu, baina martxotik aurrera beste bateria-jole bat izango dugu, Imanol Arruti oriotarra, Giranic taldekoa.

Musika-talde asko eman eta ematen jarraitzen dituen herri batean jaio da Ginger; kultura horrek zuei ere bultzatu al dizue zuen aurreko eta gaurko musika-taldea sortzera, ala beste nonbaitetik datorkizue eragin hori? Oso musikazaleak izan gara beti, eta horrek eragina izan du. Laurok Putzuzulo gaztetxean ibilitakoak gara, eta gure giroa oso lotuta joan da musikarekin eta rock eszenarekin. Astero geneukan zarata-kontzertu bat ikusteko edo antolatzeke aukera. Gure lagunek taldeak zituzten, eta horrek ere bultzatu gintuen talde bat sortzera. Zarautzen sortutako Mefsst! Musika Errebolta Feminista jaialdi feministak ere eragin gintuen; lau jaialdi egin genituen. Punk eta hardcore eszenan emakumeen falta ikusita, behar bat sortu zitzaigun elkartzeko, eta halako topagune bat egin genuen. Horrek ere indarra eman zigun elkartu, kantak egin eta proiektua aurrera eramateko.

Trap, reggaetoi, musika elektronikoa eta estilo berrien garai honetan, zelan ikusten duzue punk eta rock musika-taldeen etorkizuna? Estilo horiei buelta bat eman eta eraberritu beharko al dira? Egia da musika eszenan esti-



Ixo kanta eta bideoklipa

Ixo eta Putzuzuloko kantak daborduko atera dituzte, eta euren asmoa da martxo hasierarako EP berria aurkeztea. Sei kanta izango ditu, «eta kanta hauekin ahalik eta kontzertu gehien ematea izango da helburua aurrean».

lo gehiago daudela gaur egun, baina, hala ere, rockaren eszena nahiko osasuntsu dago Euskal Herrian. Talde piloak daude, oso indartsu eta basatiak: Vulk, Lukiek, Pinpilinpuessies... Oso eszena indartsua sortzen ari da. Komertzialki, beste estilo batzuk ere sortu dira, baina punka eta rocka ez dira hain komertzialak izan inoiz, eta bizi-bizirik ikusten ditugu. Agian, 80ko hamarkadan, punkak izan zuen beste testuinguru politiko eta eztanda bat, baina uste dugu oraintxe indarrean dagoela. Punka ere moldatzen joan da, eta eboluzio bat eman da bere horretan...

Estiloari buelta eman eta eraberritu beharko diren ala ez, bakoitzak ikus dezala, karkar. Guk uste dugu estilo gehiago eta ezberdinak egonda fusio bat sortzen ari dela ere, aberatsa dela uste duguna.

Zarautzen jaiotako taldea izanik, zelako harremana duzue Putzuzulo gaztetxearekin eta inguruko musika eta kultur alternatiboagoa eskaintzen duten mugimenduekin? Guretzako, Putzuzulo gaztetxea proiektuak aurrera eramateko leku bat izan da, hortxe pasa dugu denbora piloak, eta inguruko zirkuitu eta eszena alternatibo horiek altxorak dira guretzako, zaindu beharreko lekuak. Ea laster, pixkanaka, berriro martxa hartzen duten. ◀

Hirubi Sopedako Triatloi Taldea

«Larrabasterran ere proba bat egin gura genuen»

ANDER ZARRAGA ▶

Otsailean lanpetuta ibili dira Sopedako Hirubi Triatloi Taldeko kideak, izan ere, hilaren 19an XV. Sopedako Sprint Duatloia antolatu zuten, eta, astebete beranduago, hilaren 27an, Larrabasterrako VII. San Silvestre Herrikoaia egin zuten.

Ekain Araiz sopedoztarra Hirubiko presidentea eta bazkide sortzaileetako bat da, 2007an sortu zenetik. Dioenez, Gabonetan, Larrabasterrako San Silvestre Herrikoia VII. edizioa atzeratu zuten COVID-19aren ondorioz; hala ere, Sopedako Udalak otsailean egiteko proposatu zien: «Inauterietan egitea ondo iruditu zitzaigun, jende asko mozorrotuta etortzen delako». Gainera, aurten, dortsalen salmentatik ateratako dirua La Cuadri del Hospi elkarteari emango diote, umeen minbizia humanizatu, sozializatu eta ikertzeko eta hezur-muinaren dohaintza zabaltzeko lan egiten duen erakundeari, hain zuzen ere. Presidenteak zehaztu du beraien probak Sopedan egiten dituztenez, lasterketa herrikoaia Larrabasterran kokatzea erabaki zutela, auzoan ere zerbait antolatzeko asmoz.

Berritasun gisa, aurtengo duatloian proba egokitua ere egin zuten gurpil-aulkian doazen kirolariek ere parte har zezaten. Lehen edizio honetan hiru parte hartzaile bakarrik



400 korrikalari inguruk parte hartu zuten Larrabasterrako San Silvestre herrikoian. HIRUBI



«Korrikalariak zaintzen ditugu, klub bat garelako, ez enpresa bat; probak guretzako izango balira bezala antolatzen ditugu»

EKAIN ARAIZ
HIRUBI TRIATLOI TALDEKO
PRESIDENTEA

egon ziren, baina ahoz aho zabaltzen doan heinean jende gehiago hurbilduko dela uste dute. «Proba oso ikusgarria izan zen, kirolariek egiten duten esfortzua ikaragarria baita», dio Araizek.

Horretaz gain, duatloia kategoria orokorrean lortutako emaitzagaz oso pozik daudela dio Araizek: «Hiru urte proba egin gabe egon ondoren, zalantzakaz berrartu genuen, baina, zorionez, jendeak ondo erantzun eta 200 partaide inguru izan genituen». Presidenteak gaineratu du antolaketa oso ondo atera dela, batez ere laguntzen dieten 75 boluntarioek egindako lanari esker. ◀

**ARANTZA
ETXEBARRIA**
Hortz-Klinika

Odontologia orokorra
Ortodontzia

Periodontzia
PADI

Bidebarri 27, behea eskuina · ALGORTA 944 307 696

Petra Enea

Hartu atsedean familia edo lagun artean inguru natural paregabean

5 togeta y bainugela, txokoa, igeritekuak, barbakoa

Izoria (Arabako iparraldean) 618 805 464

Facebook, Instagram, and other social media icons.

XV. Punta Galea Challenge Olatu handien surf txapelketa

Natxo González, nagusi olatu handien gainean

Baldintza ezin hobeakaz lehiatu ziren hamaika surflari otsailaren 22an Punta Galea Challenge olatu handien txapelketan. Natxo González plentziarra gailendu zen sei metrotako olatuetan, azken uneko ezkerreko batean, puntuazio altuena zuen Aritz Aranburu gaituta. Bere atzetik, Aranburu bera, Nic Lamb, Iker Amatriain, Miguel Blanco eta Russel Bierke sailkatu ziren.



PUNTA GALEA CHALLENGE

Zaintzeko borrokatu

SORGINEN ALABAK Talde feminista



U rte luzez, gure etxeko emakumeak zaintza lanetan aritu izan dira. Gertutik prekaritatea bizi izan dugu; haien nekea, lan baldintzen urraketa, aldi baterakotasunak eragindako ezinegona eta ezegonkortasuna. Honek guztiak ondorio fisiko eta psikologikoak eragin ditu haiengan. Garbitzaileak, nagusien egoitzetan jarduten dutenak, etxeko laguntzan lan egiten dutenak... Eta ezin ahaztu egunero gure portaletan sartzen diren emakume migratuak. Honen errudun eta erantzule den sistema kapitalista patriarkal arrazistak emakumeak lan eta bizi baldintza prekarioetara kondenatu ditu. Zaintza sektorea pribatizazioa bultzatzen dutenak gizon trajedunak dira; patronala eta gobernuak. Egunero jateko dugun platera haien eskuetan dago. Ez dugu onartuko gure bizi baldintzak haien menpe egotea. Premiazkoa da euskal zaintza sistema publiko komunitarioa aldarrikatu eta defendatzea, zaintza langileen lan- eta bizi-baldintzen duintzea beharrezkoa baita. Eta guk, hurrengo belaunaldia garelako, argi daukagu: pribatizazioaren aurrean publikazioa, lan baldintzen duintzea eta bizitzak erdigunera eramango dituen sistema bat aldarrikatu behar da. Emakume guztiek egindako lanen aitortzaren alde neska gazteok ere borrokatuko dugu!

Bizitzak gainezka egin ez dezan

ERIKA BILBAO BARZENA LAB eskumalde



B art, Maitanerekin topo egin dut, aspaldiko partez. Esan dit oso nekatuta dabilela. Bere amak demenzia dauka eta, hortaz, umeen zaintzari amaren zaintza gehitu zaio; ezinean dabil. Administrazioari laguntza eskatu dio, baina itxaron zerrendan jarri dute. Gaizki sentitzen da, bere ustez berak zaindu beharko bailuke ama, inori laguntzarik eskatu gabe; emakume eta alaba txarra sentitzen da. Ez dauka dirurik beste norbait ordaintzeko, amarekin lagun diezaion. Egia esanda, ziurrenik, inork ez genuke diru nahikorik etxeko langileen lana, bere benetako balioaren arabera ordaintzeko. Monikak badaki eskatu duen laguntza datorrenean ama adinekoen egoitza batera eramango dutela. Gurean, denon beharrarekin eta diru publikoz aberasten diren negozioak dira horiek.

Zer pentsa ematen du egoerak; bizitza sostengatzen duten zaintza-lanak emakumeon esku utzi dituzte: norbere familiar, etxeko langile gisa esklabotza erregimenean; eta, enpresa pribatuetan, lan baldintza prekarioen truke.

Denok ari gara aterabide pertsonalak bilatzen, arazo indibidualak bailiran. Baina ondo zaindua izatea, eskubi-dea beharrean, negozioa izaten jarraituko du, kolektiboki borrokatzen ez garen bitartean. Kalitatezko Zaintza Sistema Publiko eta Komunitario bat exijitzeko ordua da.

Horoskopoa



Ura (Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Inauterietako ajea izanda ere, ondo moldatuko zara, itxura ona emango duzu. Baina kontuz, inbidiak piztu ditzakezu inguruan.



Otsoa (Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Lo gutxi egiten duzu, arrazioa zeuk jakingo duzu. Atsedena jarraian hartzea behar-beharrezkoa da.



Adarra (Otsailak 19-Martxoak 20)

Korrika hastear dagoela, guztioi komeni zaigu lantzean behin kirrol apur bat egitea, baina orain zuri bereziki. Irten kalera eta mugitzaitez.



Aitzurra (Martxoak 21-Apirilak 19)

Lanean dena ondo doakizun arren, baliteke etxean, hau da, familiar, arazoren bat edo beste sortzea egunotan.



Hostoa (Apirilak 20-Maiatzak 19)

Azkarra zara, eta besteen aurrean zure gaitasun hori demostratzeko aukerak izango dituzu han eta hemen; ekin!



Eguzkia (Maiatzak 20-Ekainak 18)

Lan handia duzu, baina, nahiz eta amaitzen saiatu, ez duzu lortuko. Baztertu lan horiek eta arreta gehiago eskaini etxekoei.



Garia (Ekainak 19-Uztailak 18)

Lasai motel, oraingoa ez da zure sasoirik onena, baina maite zaituztenak ez dira horren errudunak, eta ez dute zure jarrera hori merezi.



Lastoa (Uztailak 19-Abuztuak 17)

Azken boladan bizi izan duzun egoera larria bukatze dago, eta ateratzen ez ziren gauzak apurka-apurka aterako dira.



Iratzea (Abuztuak 18-Irailak 16)

Aratusteetako mozorroagaz kalean oraindino? Lagun, bada garaia da trapu zikin horiek bazter batean utzi eta kaleko arropa janzteko.



Meta (Irailak 17-Urriak 16)

Zure usteak gauzatzeko beldur izango zara. Ezintasunaren antzeko zeozer sentituko duzu. Animo gazte, edo ez hain gazte!



Hazia (Urriak 17-Azaroak 15)

Lan kontuetan zure kreatibitatea askatuko duzu, baina baliteke zeure inguruan ulertua ez izatea. Izan ezazu konfiantza zeure buruan.



Negua (Azaroak 16-Abenduak 20)

Neguko hotzerian goibel xamar ibili ondoren, eguzkiaren etorreragaz batera, zure egoera fisikoak onera egingo du.



Txor-txor-txor

Onomatopeia zer den denok dakigu: hots bat imitatzen duen hitza. Berba-
ren etimologia ere garden samarra dugu, grekotik heldu baitzaigu: *ono-*
ma (izena) eta *poieo* (sortu, eraiki, egin). Leibniz pentsalari alemanaren
aburuz, onomatopeia giza hizketaren jatorrizko forma dugu. Izan ere,
zentzuzkoa dirudi lehendabiziko berbak naturako hotsen imitazioz sortu
zirela pentsatzeak.

Onomatopeiak hizkuntza guztietan aurki ditzakegu, baina aldatu egiten
dira batetik bestera. Esaterako, gaztelaniazko edo ingelesezko *oinc/oink* onomatopeiatik
(txerriak dagien hotsa) euskarazko *kurrin* onomatopeiara aldetxoa dago.

Hizkuntza batzuk sano aberatsak dira onomatopeiatan. Esaterako, ibiltzearen ekintza
adierazteko hamazazpi onomatopeia inguru omen ditu japonierak. Euskararekin alderatu-
ta, bi edo hiru bai bereiz genitzake: *tipi-tapa/ttipi-ttapa* (urrats laburretan ibiltzea), *txaka-*
txaka (gure eskualdean asko erabiltzen da; astiro baina lotu barik ibiltzea), *tiriki-tarraka*
(kostata ibiltzea)... baina hamazpira nekez helduko ginatke, euskalki eta aldaera guztie-
tako formak sartuta ere.

Aldeak alde, globalizazioak hango eta hemengo formak elkarren kontaktuan ipini ditu,
eta gehienetan, hizkuntza gutxituetako onomatopeien kaltean. Adibidez, euskaldun gehie-
nok badakigu, jakin, euskaraz barrea kar-kar-kar onomatopeiaren bidez adierazten dela,
baina gero erabileran gaztelaniari egiten diogu men, *jajaja* ikusten baita gehien. 'Ekono-
mia kontua da' esango dit baten batek. Erabat ados. Gaztelaniaz barrearen onomatopeia *ja,*
ja, ja idatzi behar litzateke, baina gero hitzun gazte intsumisoez *jajaja* idazten dute wha-
tsappez, *jjjjj* idazten ez dutenean. Eta guk, zergatik ez? Lagun batek *krkrkrkr* idazten dit
beti Whatsappeko mezuetan. Ez da bide txarra gu ere ekonomiaren lehia horretan sartzeko!

Oraingoan txor-txor-txor ibili naiz berbaz, isildu barik. Bla-bla-bla esanda ere, denok
ulertuko zenuten, baina antzinako euskaldun argiei etenbako berbeta adierazteko zozoa-
ren kantuaeren hotsa erabili bazuten (txor-txor), zergatik ez egin eurei omenalditxoa, eus-
karaz bla-bla-bla-ren ordez txor-txor-txor erabilia? ◀



Izen bihurtu diren onomatopeiak

Arrantza

Astoak dagien hotsa.

Dardara

Ikara.

Irrintzia

Zaldiaren hotsa, oihu zoli luzea.

Kili-kilia

Kilikatzeko ekintza eta ondorioa.

Txalaparta

Perkusio tresna.

Txilin

Kanpai txikia.

Tximista

Justuria, oinaztargia.

Txirrina

Deitzeko tresna.

Txutxumutxua

Kontu txikia, esamesa.

Ulua

Piztia batzuen oihu ozena, uhuria.

Zirimiria

Euri mehea.

Zurrut

Hurrupa, tragoa.

Iluntasunean argiaren bila

Izarrak, kotxeen argiak edo ura, gauez argazkia egiterakoan, beste xarma bat dute. Gure begiek ezin dituzte izoztu gure kamerarekin sortu ahal ditugun irudiak, eta, horregatik, gaueko argazkiak hain berezi egiten zaizkigu.

Argi gehiago behar dugu

Gaueko argazkiak egiteko mila aukera daude, baina, orokorrean, guztietarako pazientzia eta planifikazioa beharrezkoa izango da. Argi oso gutxi dagoenez, esposizio luzeak egingo ditugu, eta horrek denbora behar du. Hemen ematen ditugun aholkuak gutxi batzuk dira; gustuko baduzue, bilatu ezazue informazio asko baitago argazki mota bakoitzerako, izarrak harrapatzeko mila modu daude, argien mugimenduak, ura...

Objektibo onak gauerako? Zenbat eta argitsuago izan, hobe. Fokal angeluar handia beharko duzu. Zure kamera Full Frame (Fx) ez bada, ziurtatu angeluar handia izaten jarraitzen duela konbertsio-faktorearen ondoren. Pentsatu, gaueko argazkiak eta paisai argazkiak egiteko asko erabiliko duzun objektibo bat izango dela, beraz, hori gustuko baduzu, inbertsioa ona izango da optika on bat lortzea.

Hiria gauez?

Kotxeen argiei esker mugimendua erakutsi nahi badugu, esposizio luze bat egin behar dugu. Bestela, ISOa igo beharko dugu, obturazio-abiadura jaitsi eta diafragmaren irekiera areagotu, argiek gure argazkia erre ez dezaten.

Eguzki-argirik ez dagoenez eta argiak, semaforoak eta bonbilla argiak direnez, gure argazkiek beste interesgune batzuk aurkituko dituzte. Adibidez, mugimendua argiari esker.



Izarrak

Izarrak zeruko puntu gisa lortzeko, denbora jakin batetik pasatzen ez den esposizio bat egin beharko dugu. Denbora hori erabiltzen ari garen foku-luzerak zehaztuko du, eta 500/ distantzia fokala izango da.

Adibidez, Tokina objektiboa, 11 milimetrora, izarrak puntu gisa uzteko, 500/11 arte erakutsi ahal izango dugu; hau da,

45 segundora arte. Aldiz, 50 mm finkoa erabiltzen badugu, 500/50 arte baino ezin izango dugu erakutsi, hau da, 10 segundo besterik ez, izarrak lerro gisa ager ez daitezten.

Argazki-mota honetarako, gomendatzen ditugun balioak, lehenik eta behin, ahalik eta irekien irekitzea dira; beraz, gure f/ ahalik eta gehien jaitsiko dugu. ISO igo behar dugu gure sentsoreak izar gehiago erregistra dituzan, 800 eta 3.200 artean balio onak izan daitezke, baita 4.000 ere, gure kamerak ISO altuak nola sostengatzen dituenaren arabera. Diafragma eta ISO ezarri ondoren, erantsitako taularekin kalkulatu dugu denbora.

Urrundu zaitetz argi-kutsaduratik. Farolaz inguratuta bagaude edo hiriko argi-enkoadraketan agertzen badira, argazkiaren gune hori erre dezakete. Nahiz eta hiritik urrun egon eta argi-kutsadura egon, zeruak laranja kolorearekin agertuko dira, beraz, bila itzazue leku aproposak. Kontuz ilargiarekin argi asko islatzen baitu. Espero duzuna baino askoz gehiago, eta, jakina, izarrek igortzen dutena baino askoz gehiago; beraz, hobe da ilargia ez dagoela kontuan edukitzea.

Lightpainting

Argiztapen artifiziala erabiltzen dugu argiekin margotzeko, hala nola linternak edo koloreetako argiak. Teknika honek ez du ekipo handirik behar, baina bai praktika nahi duzun efektua lortzeko. Horrelako efektuak lortzeko, honako hauek baino ez dituzu behar: LED linterna bat, kolorez alda daitekeena, edo argiak, linternak, flashak, tripode bat. Bulb tankerako kamera bat, hau da, eszena 30 segundo baino gehiagorako erakutsi ahal izango duena, esposizio luze bat jarri beharko baituzu. Eta diafragma f/8an gutxi gorabeherako irekiera gisa.

Kokapenaren eta enkoadraketaren arabera, irudia pixkanaka aldatu beharko duzu. Teknika honek, batez ere, hasi aurretik azken emaitzan pentsatzea eta plangintza on bat egitea eskatzen du.



Ezinbestekoak

Gauetz argazkiak egitera goazenean, normalean baino ekipo gehiago eramango dugu, denbora nahiko pasako baitugu argazkiak egiten eta, askotan, hotza pasatzen:

Tripodea. Tripodea funtsezkoa da gaueko argazkigintzarako. Esposizio-denbora luzeak erabili beharko ditugu, eta tripodetik gabe egiten badugu, irudi dardarti eta enfokatu gabekoak geratuko zaizkigu.

Interbalometroa. Urrutiko disparadore bat da, eta gaueko argazkian beharrezkoa da, batez ere esposizio luzeetarako edo autoerreturatuetarako. Gainera, funtsezkoa da trepidazioa saihesteko; hau da argazkia egiteko sakatzen dugunean sortzen den dardara.

Interbalometroari esker, programa dezakegu gure kamera automatikoki denbora-tarteetan klikatzeko. Horrela, gure kamerak argazki kopuru jakin bat egitea lortuko dugu, denbora jakin batez eta argazki bakoitzaren artean denbora-tarte zehatz batekin.

Frontala. Lan-eremua argitzen lagunduko digu. Linterna bat baino askoz erosoagoa da, tripodea jartzeko eta antolatzekeo eskuak faltako zaizkizu linterna normal batekin. Horregatik, erosoena frontal linterna bat eramatea da. Eta askotan ere, argi indartsua dutenekin *lightpainting* egiteko lagunduko digu ere.

Bateriak. Bateria gehigarriak, batez ere egun hotzetan. Beti da ona bateria osagarriak eramatea, baina gauetz hotz handiagoa egiten du eta hotzarekin bateriak azkarrago kontsumitzen dira. Horregatik, ezinbestekoa da ordezeko bateriak eramatea. Eraman beti egunean zehar eramango zenituzkeenak baino gehiago, eta hotz asko egiten badu, sartu bateriak zure txamarran zure gorputzeko beroarekin karga hobeto mantentzeko.

Motxila. Argazki-motxila on bat edo poltsa txiki bat kamera eta osagarriak gordetzeko. Etxetik ateratzen garen bakoitzean, funtsezkoa da gure ekipoa babestuta eramatea, dela kamera bakarrik, dela ekipo handi bat. Segurtasuna, kolpeen eta makurren aurkako babesa funtsezkoa da abentura askotan errepikatu ahal izateko. Janaria edo arropa gehigarria eramatea ere komenigarria da luzatzeko asmoa dugunean.



App lagungarriak

Antolatzekeo orduan, aplikazio asko ditugu lagungarri, hemen adibide batzuk jarriko ditugu, baina zuek bilatu zuen gustukoena. Batzuk ordainpekoak izan ahal dira, eta igual doakoak ere topa ditzakezue.



Photopills. Astroak, izarrak eta bestelako informazio erabilgarria non dauden edo egongo diren jakiteko. PhotoPills da horietako bat. Izan ere, app ospetsuena eta osoena da. Erabiltzeko asmoa baduzu, ordainpekoa da, baina merezi duen horietakoa da. Eguzkiari, ilargiari eta esne-bideari buruzko informazioa ematen dizu, eta Timelapse direlakoekin, esposizio denborekin eta argazkilarientzako beste datu interesgarri batzuekin ere laguntzen dizu, haien webgunean ikus daitekeenez.

Eguraldiko aplikazioak. Oso garrantzitsua da jakitea euria egingo duen ala ez, eta zerua garbi edukiko dugun ala hodeitsua. Izarrak atera nahi baditugu, adibidez, jakin beharko dugu zeru garbia edukiko dugun, eta hotz asko ez pasatzeko ere bai, lagungarria izango da jakitea zenbatera jaitsiko den tenperatura gauean.

Mapa estelar. Edo antzeko izarren mapak, lagungarri izango zaizue esne-bidea non dagoen jakiteko, eta izarren argazkiak egiterakoan zeruan ondo kokatzeko.

DOF calculator. Ereku sakontasuna kalkulatzeko aplikazioa da, kasu honetan, mila aukera izango dituzue, beraz bilatu zuen gustukoena eta sinpleena dena. Halako aplikazio bat zuen diafragma eta fokuan agertuko diren distantziak kalkulatzeko lagunduko dizue.

Norway lights. Gainera, Artikora bidaiatzeko asmoa baduzue aurora borealaren argazkiak ateratzeko, NorwayLights bezalako beste batzuek esango dizute gau horretan ikusiko diren ala ez. Zeruari buruzko informazio guztia, astronomiaren zein klimaren ikuspuntutik, funtsezkoa da etxetik irten aurretik.

Apirilean:

Kirol edo abiadura handiko argazkiak

Hirukira olgetan


© GARBIÑE UBEDA



OTSAILLEKO
SOLUZIOAK

Mezu gordea

Esaera zahar asko eguraldia iragartzeko trukuak direla ematen du. Jarri iruditxo bakoitzaren azpian dagokion hizkia eta asmatuko duzu zer dioen honako honek:




ALFABETOA




Irudi engainariak

Puskatxo hauetatik erdiak irudi handitik hartuta daude eta beste erdiak engainariak dira, hau da, ez datoz irudiarekin bat, oso antzekoak izan arren. Bereiz itzazu.



Eguraldi iragarpena

Aurki itzazu bi irudien artean dauden aldeak. Bederatzi dira.



Zer iruditzen zaizu terrazak lehengo egoerara bueltatzea?



IRATXE TEJADO
GOIKOA TABERNA

Getxoko Udalak ez digu zuzenean esan terraza kentzeko, azken eguna bakarrik adierazi ziguten udara begira kasu bakoitza aztertuko zutela esanez. Zenbait ostalarik idatzi bat helarazi diogu Udalari terrazak irailaren 30era arte mantentzeko, pandemia oraindik ez delako bukatu eta olatu berria etor daitekeelako.



JONATHAN CAMPOMANES
ONDATEGI BERRIA TABERNA

Guretzako kutzaren erdia inguruko diru-sarreraren galera izango da. Jendeak oraindik ez du tabernen barrualdera sartu gura. Itxaropena geneukan terrazak irailera arte mantenduko zituztela, esan zutelako kasu bakoitza ikertuko zutela; eskertzekoa litzateke galdutako dirua berreskuratzeko, behintzat.



DORI
URKI TABERNA

Oso haserre gaude. Hau COVID-19agatik egin zen, baina oraindik ez da amaitu eta jendeak ez du gura tabernetan sartu. Horretaz gain, erdiguneetan ez gauden auzoetako merkataritza eta ostalaritzari bizitza ematen diote terrazek, horiek merkataritza-gune handien mesedetan hiltzen uzten ari baitira.



OCTAVO CATALAN
AKELARRE TABERNA

Nik hasieratik erabaki nuen terrazarik ez jartzea, pentsatu nuelako dirua xahutzeko neurri bat besterik ez zela, ez laguntza bat. Pandemiarena bezalako garai latz batean dirua gastatzera behartzen gintuen, gutxienez 2.500 euro ordaintzera, gero zakarrontzira botatzeko, hain zuzen.



BOITEK SERAFIN
ROMO

Nik pentsatzen dut geratu beharko zirela, herriari bizitasuna eta alaitasuna ere ematen diotelako, eta ez dituztelako hainbeste aparkaleku hartzen. Itxialdian denok dirua galdu genuen, taberna-jabeek eta langileok ere, eta neurri horren birtartez diru apur bat ere berreskuratuko genuke.



HEIDI JUANIQUINA
CAFE HEIDI

Jendeak nahiago du kanpoan egon, batez ere orain, uda eta beroa datozela. Niretzat terraza, aulkiak eta parasolak inbertsio garrantzitsua izan ziren, bankuari mailegua eskatu behar izan nion, eta ez ditut ezta sei hilabetez eduki. Nik ez dut alkoholik saltzen, beraz, ez dakit nola egingo diodan aurre guztiari.



IÑAKI OLEA
GAZTEDI TABERNA

Udan berriro jartzeko aukera izango dugula esan digute, kasuak banan-banan aztertu ondoren, baina ez dakigu zer gertatuko den. Materialak eta muntaketak inbertsio bat suposatu zuten guretzako, eta guk, behintzat, gorde ahal izan ditugu, baina beste taberna batzuek ez dute lekurik eta bota behar izan dituzte.



PEDRO ALONSO
BAR GALEA

Guk urrian jarri genuen terraza, eta ordutik ez dugu ezta materialengatik ordaindu genuena berreskuratu, neguan ia ez direlako terrazak erabiltzen, udan baizik. Gainera, jendeak ez du barrualdera sartu gura, oraindik pandemiaren beldurra dagoelako. Hortaz, idealena urrira arte mantentzea izango litzateke.

hirukalagunen txokoa

Sari ederrak eskura!

Zozketa

Loraldirako ikuskizunak

Euskal kulturaren aldeko Loraldia Festibalak hamaika proposamen ekarriko ditu datozen egunotarako. Horietarako sarrera bikoitz ugari ditugu zozkatzeko. Baten bat gura duzu?

Zozketan parte hartu gura baduzu, martxoaren 17a (eguna) baino lehenago bidali zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: bete Zozketak ataleko formularioa.

LORALDIA

EUSKAL KULTURA GAUR



Zozketa

Errigorako saski berdea

Udaberrian Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura zabaltzeko kanpaina abiatu du Errigorak. Hala, urtero legez, saskiak ditugu zuon artean banatzeko. Saski berdea gura duzu?

Zozketan parte hartu gura baduzu, martxoaren 17a (eguna) baino lehenago bidali zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: hiruka@hiruka.eus; edo bete Zozketak ataleko formularioa.



Zozketa

Sumendiak pop-up liburua

Ibaizabal argitaletxeari esker, zortzi urtetik gorako umeentzako pop-up liburu eder hau zozkatuko dugu HIRUKAlagunen artean. Zurea izatea gura duzu? Bada, eman izena!

Zozketan parte hartu gura baduzu, martxoaren 17a (eguna) baino lehenago bidali zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: hiruka@hiruka.eus; edo bete Zozketak ataleko formularioa.



Zelan egin HIRUKAlagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna

Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus

Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.



GUUKERE

aek

22.korrika

NOLA EGIN EKARPENA KORRIKARI?

Transferentzia:

ES70 3035 0072 02 0720037810

VISA txartelaz gure webgunean:

www.KORRIKA.eus

Bizum:

"korrika" edo "aek" bilatuz.

aek
22.korrika

HITZELAN HITZEKIN

Amurriotik Donostiara

2022ko martxoaren 31tik apirilaren 10era

Algortako AEK - Lauaxeta euskaltegia
Iparbide, 6-Behea
688 746 776
lauaxeta@aek.eus

Leioako AEK - Lamia euskaltegia
Dr. Luis Bilbao Libano, 8
607 632 655
lamia@aek.eus

Gorliz AEK - Jentilbaso euskaltegia
Iberre plaza, 5
646 773 646
jentilbaso@aek.eus

Plentziako AEK - Jentilbaso euskaltegia
Kristo enparantza, 8
607 633 370
jentilbaso@aek.eus

Uribe Kostako AEK
Iparbide, 6-Behea
94 430 47 34
uribekosta@aek.eus

aek